



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

IRAKASLEEN JARRERAK ETA USTEAK INGELESAREN SARRERA GOIZTIARRAREKIKO

Egilea: Onditz Iturbe Arginzoniz

Zuzendaria: Nerea Badiola Uribe

Leioan, 2014ko ekainaren 11n

© 2014, Onditz Iturbe

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala	5
1.1.Sineskeren eragina ingelesaren sarrera goiztiarrarekiko jarreran.....	6
1.1.1. Adina	8
1.1.2. Ingelesa.....	9
1.1.3. Euskara/gaztelania.....	10
1.2.Jarreraren neurketa	10
2. Helburuak eta hipotesiak	11
3. Metodologia	12
4. Lanaren garapena	
4.1.Galdetegia	
4.1.1. Prozedura	14
4.1.2. Lagina	14
4.1.3. Emaitzak	16
4.2.Elkarrizketa	
4.2.1. Prozedura	19
4.2.2. Lagina	19
4.2.3. Emaitzak	19
5. Ondorioak.....	22
5.1.Ikerketaren mugak	24
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	25

ERANSKINAK

1. eranskina: galdetegia.....	26
2. eranskina: galdetegiaren emaitzak	30
3. eranskina: elkarrizketarako galderak	31
4. eranskina: elkarrizketen transkripzioak	32

IRAKASLEEN JARRERAK ETA USTEAK INGELESAREN SARRERA GOIZTIARRAREKIKO

Onditz Iturbe Arginzoniz

UPV/EHU

Ingelesaren sarrera goiztiarra ohikoa bihurtu da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan. Jendeak, oro har, bere eraginkortasuna defendatzen du, baina bere hedapen neurrigarriak kontrako jarrerak ere sustatu ditu. Zurrunbiloaren erdian dago haurra, ingurutik helarazten zaizkion mezuen bitartez hizkuntzekiko bere ikuspegia osatuz doalarik. Bere jarreretan eragiten duten aldagai anitzen artean irakasleek zeresan berezia dute. Hori dela eta, zenbait irakaslek ingelesaren sarrera goiztiarrarekiko duten ikuspuntua aztertzea du helburu ikerketak. Emaitei erreparatuz, nola tutoreek hala ingeleseko irakasleek jarrera baikorra agertu duten arren, ingelesari eskaini beharko litzaiokeen denborak bereizketa argia azalerazi du. Halaber, irakasleen uste eta iritziak, zenbaitetan, ikasleen adinaren garrantzian oinarritutako sineskerietatik haratago doazela plazaratu da.

Haur Hezkuntza, ingelesa, sarrera goiztiarra, irakasleen jarrera, eleaniztasuna

La introducción temprana del inglés es habitual en las escuelas de la Comunidad Autónoma Vasca. La gente, en general, defiende su eficacia, pero su desmesurada expansión ha suscitado actitudes negativas. El/la niño/a se encuentra inmerso en esta vorágine, construyendo su conducta a partir de los mensajes que recibe. Debido a la influencia que los profesores ejercen, el objetivo primordial de la investigación es estudiar las actitudes del profesorado hacia la introducción temprana del inglés. Teniendo en cuenta los resultados, se puede afirmar que tanto tutores como especialistas han presentado una actitud positiva, sin embargo, el tiempo que debería dedicarse al inglés ha creado una clara división. Además, se ha constatado que algunas opiniones van más allá de las meras creencias basadas en la importancia de la edad de los alumnos/as.

Educación Infantil, inglés, introducción temprana, actitudes de los profesores, plurilingüismo

The early introduction to English is common in schools in the Basque Country. People generally defend its efficacy; however, its disproportionate expansion has risen negative attitudes. The child is immersed in this confusion, building his/her own viewpoint from the messages s/he receives from his/her surroundings. Given that teachers are decisive in the creation of attitudes, the main aim of the study is to investigate teachers' outlook on the early introduction to English. Although tutors and English teachers present a positive attitude, the time that should be devoted to English has created a clear division. The study likewise has shown that sometimes teachers' opinions go beyond mere beliefs concerning the importance of children's age.

Pre-Primary, English, early introduction, teachers' attitudes, plurilingualism

Sarrera

Gero eta ingurune eleanitzagoan bizi gara. Askotan pentsatzen denaren kontra, elebitasuna eta eleanitzasuna mundu osoan hedatutako fenomenoak dira. *The Ethnologue* (Gordon, 2005) argitalpenaren sareko bertsioak dioenez, munduko populazioaren erdia elebidun edota eleanitz funtzionala da.

Gertakari hau aintzat harturik, Europako Kontseiluak atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren aldeko jarrera azalerazi du. Kultura ezberdinenaganako tolerantzia eta errespetua sustatzeko, Europa eleanitzaren beharrianak asetzeko eta europarren mugikortasuna bultzatzeko bitarteko gisa jotzen du atzerriko hizkuntzen ikaskuntza. Hori dela eta, Europako Erreferentzi Marko Bateratuan (Europako Kontseilua, 2001) Europar Batasuna osatzen duten estatuei atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko nazio mailako neurriak garatzeko eskatu zitzaizkien. Izan ere, europarrak ama hizkuntzaz gain, gutxienez beste bi hizkuntza erabiltzeko gai izatea da Europako Batzordearen azken helburua: *“El objetivo de la Comisión a largo plazo es potenciar el multilingüismo individual hasta que cada ciudadano tenga un conocimiento práctico de al menos dos idiomas además de su lengua materna”*.

Testuinguru honetan, espainiar estatuak atzerriko hizkuntzen sarrera goiztiarra hartu du xedea erdiesteko estrategia nagusitzat. Badirudi hautatutako bideak harrera ona izan duela, bere hedapen neurrigabea gizartearen onarpenaren isla gisa interpreta baitaiteke. Hala ere, Espainiako zenbait tokitan ingelesaren sarrera goiztiarraren ezarpena eztabaidagai bihurtu da. Polemika hori hizkuntza gutxituren bat duten autonomia-erkidegoetan, Balear Uharteetan, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) edo Nafarroan esaterako, dago batik bat borborrean. Izan ere, ingelesari ematen zaion bultzada hizkuntza autoktonoen aurkako erasotzat uler daiteke.

Gurean, auzi hori gaurkotasun-albiste bihurtu da beste behin ere. 2014ko maiatzaren 7an eredu hirueledunaren lehenengo balorazioek agerian utzitako argi-ilunek eztabaida berpiztu dute. Ingelesak EAeko hezkuntza sisteman izan beharko lukeen presentziaren inguruko gogoetek ingelesaren sarrera goiztiarraren aldeko eta aurkako jarrerak indartu dituzte.

Ikasleen ingurune hurbilean agertzen diren jarrera hauek ikasleen ikaskuntzan eragin nabarmena dutela ez da zalantzan jartzen. Zentzu horretan, hezkuntza testuinguruan,

irakasleak arreta berezia behar du, bere jokaerak ikasleen ikuspegia baldintzatzeko indar handia baitu. Irakasleek sarrera goiztiarrarekiko agertzen dituzten jarrerak, ikasleek ingelesarekiko eta bere ikaskuntzarekiko garatuko dituzten portaeren oinarriak zehaztuko dituzte neurri handi batean. Hori dela eta, testuinguru zehatz baten baitan irakasleek agertzen dituzten jarrerak ikertzea da azterketaren asmoa. Hain zuzen ere, Inazio Zubizarreta Herri Ikastetxeko zenbait irakaslek ingelesaren sarrera goiztiarrarekiko duten ikuskera aztertu da.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Espainiako hezkuntza legeek denboran aurrera egin duten heinean, atzerriko hizkuntza ikasteko adina aurreratu dute. Hezkuntza legeek, beraz, atzerriko hizkuntzaren sarrera arautu eta moldatu dute azken hamarkadetan. Horrela, 1970eko legeak atzerriko hizkuntza hamaika urterekin ikasten hasi behar zela ezarri zuen. 1993an, berriz, Lehen Hezkuntzako bigarren ziklora (8 urte) aurreratu zen atzerriko hizkuntzaren sarrera. Baina ordurako zenbait autonomia-erkidegotan hasiak ziren atzerriko hizkuntza Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ezartzen. Horren adibide da EAEko eta Nafarroako zenbait ikastetxetan 1991/1992 ikasturtean Ikastolen Elkarteak abian jarri zuen “Eleanitz” proiektua. Euskara izanik beraien hezkuntzaren ardatz eta indargune, atzerriko hizkuntza goiz ezarri eta berari pixkanaka lantzea nola euskararen hala haurren onurarako lagungarria zela sinetsita, ingelera lau urteko geletara eraman zuten (Elorza, 2006). Ekimenak harrera ona izan zuen eta berehala hedatu zen EAEn eta Nafarroan zehar. Hori dela eta, 2006ko legeak atzerriko hizkuntzaren sarrera Haur Hezkuntzako etapara aurreratu zuenean, ikastetxe gehienak ez zituen ezustean harrapatu.

Gaur egun, gure autonomia-erkidegoan ohikoa bihurtu da ingelesa hirugarren hizkuntza gisa lau urterekin ikasten hastea. Hain errotuta dagoen praktika da, non jendeak beranduago hastea arrotz bezain atzerakoitzat jotzen duen. Oro har, jendea atzerriko hizkuntza goiz ezartzearen aldeko agertzen da, bultzatzen dituen onurak ugariak direla argudiatuz (Lasagabaster eta Doiz, 2003). Izan ere, ikuspegi hori defendatzen duten ikerketak anitzak dira. EAEko testuinguruan, esaterako, Ikastolen Elkarteak eta Euskal Eskola Publikoak burututako azterketek sarrera goiztiarra, ondo planteatuz gero, aberasgarria dela frogatu dute (Irureta, 2007).

Hala ere, zenbait adituk ingelesaren sarrera goiztiarraren onurak baieztatzeko froga zientifiko nahikorik ez dagoela diote. Gainera, Europako hezkuntza sistema guztietan ohikoa da atzerriko hizkuntza irakastea, baina ez da hain ohikoa gurean bezain goiz hastea (Cenoz, 2003). Eredugarria den finlandiar hezkuntzan, adibidez, 12-13 urterekin hasten dira ingelesa ikasten eskolan. Ondorioz, zenbait ikerlarik ikasle nagusiagoek gazteagoek baino maila hobea lortzen dutela defendatzen dute. Iritzi horretakoa da Goikoetxea (2006), zeinak ingelesarekin goiz hasteak ez dakarrela ezinbestean lorpen-maila handiagorik dioen. Era berean, ingelesa euskararen etsai gisa interpretatzen dute zenbaitek, euskarak hezkuntzaren baitan erdietsitako lorpenak arriskuan jartzen dituen mehatxutzat jotzen dute hain zuzen ere. Sarrera goiztiarraren aurkakoek ingelesak bi hizkuntza ofizialen garapena (batez ere, hizkuntza gutxitua den euskararena) oztopatzeaz gain, ikasleek etorkizunean euskararekiko agertuko duten jarreran eragin negatiboa izan dezakeela agertzen dute (Lasagabaster, 2007).

Ikus daitekeenez, ingelesaren sarrera goiztiarrari buruzko iritzi kontrajarriak daude. Adina, hirugarren hizkuntzak garapen psikologiko eta linguistikoa daukan eragina, ingelesak euskararengan duen influentzia eta antzeko beste hainbat gaik eztabaida sortzen dute gurea bezalako gizarte eleanitzean.

1.1.Sineskeren eragina sarrera goiztiarrarekiko jarreran

Ikus daitekeenez, ingelesaren sarrera goiztiarrari buruzko hainbat sinesmen daude errotuta gure gizartean. Sinesmen horiek eraldatuz joan dira garaiak (eta horiekin batera pentsamoldeak) aldatuz joan diren heinean. Ondoriozta dezakegu, beraz, sinesmenen oinarria kulturen bertan dagoela. Izan ere, sinesmenak testuinguru kulturalaren baitan eta esperientzien errepikapenaren bitartez eratzen dira (Palomino, 2012).

Sinesmen horiek gizabanakoaren ekintzak gidatzen dituzte, eta pentsaeraren parte direnez, balio interpretatzaile eta ebaluatzailea dute (Ramos, 2007). Ondorioz, sinesmenak gizabanakoaren jarreran islatzen direla baieztatu daiteke.

Baina jarrerak norbanakoarenak ez ezik, hein handi batean, gizartearenak ere badira. Hori dela eta, jarrerak giza jokamoldearen norabidea azaleratzen dute. Bakerren (1992) arabera, jarrera “*es un constructo hipotético utilizado para explicar la dirección y persistencia de la conducta humana*”. Nahiz eta zuzenean eta objektiboki behagarriak

eta neurgarriak ez diren, kanpoko jokabide iraunkorretatik ondoriozta daitezke. Izan ere, jarrera ikasia da eta esperientziaren bitartez alda badaiteke ere, denboran iraunkorra izateko joera du (Baker, 1988). Autore honek nabarmentzen duenez, jarrerak komunitatearen iritzi eta ikusmoldeen adierazle dira.

Giza jokabidearen abiapuntu diren jarrerak garrantzia berezia hartzen dute ingelesaren sarrera goiztiarraren baitan. Izan ere, ikasleek eta bere inguruko pertsona esanguratsuek (guraso, irakasle, etab) hizkuntzaren ikaskuntzarekiko agertzen duten jarrerak ikas-irakas prozesuan eragin nabarmena izango du (Palomino, 2012). Jarrera ikaskuntzaren arrakastarekin zuzenean erlazionatuta dago, eta hortaz, ikasleek hizkuntza horretan lortuko duten hizkuntza-gaitasuna baldintzatuko du. Are gehiago, hizkuntza-gaitasunean ez ezik, esperientziaren ulermenean, autokontzeptuaren eraketan eta kultura-balioen jabetzean ere eragingo du (Gardner, 1985).

Ikasleen jarreraren eraketa prozesuan eragiten duten aldagaiak ugariak eta izaera anitzekoak dira: adina, generoa, hizkuntza-ingurunea, hezkuntza eta kultura-testuingurua, eta norbanakoaren hizkuntza-gaitasuna, besteak beste. Hala ere, testuinguruko faktoreek norbanakoaren ezaugarriek (adina, sexua, hizkuntza-gaitasuna) baino gehiago baldintzatzen dituzte jarrerak (Hernández-Campoy, 2004).

Baina norberaren esperientzia zuzena da, zalantzarik gabe, jarreraren eragiten duen aldagairik esanguratsuen (Lasagabaster, 2003). Sarrera goiztiarreko ikasleen kasuan, esperientzia hori inguruko pertsona esanguratsuek baldintzatua egongo da, beraiek baitira haurren bizipenen oinarri eta eredu nagusi. Gainera, jarraibidetzat dituzten pertsona horien eraginpean sortutako jarrerak bereziki iraunkorrak izan ohi dira (Lasagabaster, 2003). Horrela, ikaskuntzaren esparruan, lau dira jarreraren sorreran edo aldaketan eragin dezaketen oinarrizko faktoreak: gurasoak, irakasleak, ikaskideak eta ikastetxea.

Aldagai guztiek berebiziko garrantzia duten arren, irakaslearen jarrerari arreta berezia eskaini behar zaio, neurri handi batean, beste elementuengan eragiteko gaitasuna baitu. Halaber, hezkuntza testuinguruan, irakasleak ikasleen jarreraren eragiteko indar handia du. Irakasle-ikasle harremanaren inguruko azterketak egin diren arren, zaila da irakasleak ikasleengan zer-nola eragiten duen ondorioztatzea. Alabaina, ikerketa guztiek berretsi dute irakaslearen gogo bizia eta konpromisoa direla ikasleengan jarrera baikorrak garatzeko eta mantentzeko aldagairik garrantzitsuenak (Lasagabaster, 2003).

Irakasleek ingelesaren sarrera goiztiarrarekiko duten jarrera baikorra edo ezkorra hiru arlotako sineskerak baldintzatua egongo da: adina, ingelesa eta euskara/gaztelania.

1.1.1. Adina

Hizkuntzak ikasteko adin kritikoaren teoriapen (*critical period theory*)¹ asko dira sarrera goiztiarra defendatzen dutenak. Aldeko agertzen direnen artean ondorengo argudioak nagusitzen dira:

- Haurrek hizkuntzak ikasteko erraztasun berezia dute.

Haurrek bigarren edo hirugarren hizkuntzak helduek baino errazago berenganatzen dituztenaren sinesmena gizartean oso hedatua dago. Testuinguru naturaletan egindako azterketek sinesmen horren egiazkotasuna frogatu dute. Testuinguru formaletan, aldiz, adin ezberdinetan hasitako ikasleen artean alderik ez dagoela plazaratu da (Cenoz, 2003).

- Sarrera goiztiarrak eragin positiboa du ikasleek lortuko duten ingeleseko gaitasunean.

Ikerketa ezberdinek (Arzamendi eta besteak, 2001; Doiz eta Lasagabaster, 2004) berretsi dute adin bereko ikasle goiztiarrak eta berantiarrak alderatuz gero, ingelesean emaitza hobetoak eskuratzen dituztela ikasle goiztiarrek.

Bestalde, adin kritikoaren teoria arbuiatu, eta sarrera goiztiarraren onurak zalantzan jartzen dituztenen jarrera ondorengo azalpenetan oinarritzen da:

- Helduaroan hizkuntzak azkarrago ikasten dira.

Helduaroan norbanakoak heldutasun kognitiboaz gain, hizkuntza-esperientzia zabala ere badu. Trebetasun eta estrategia eraginkorrek ingelesaren jabetze prozesuan lagunduko diote ikasle helduari. Horrela, atzerriko hizkuntza adin aurreratuago batean ikasitako

¹ Aldi kritikoaren hipotesia lehenengo aldiz Wilder Penfield neurologoak eta Lamar Robertsek “*Speech and Brain Mechanisms*” (1959) lanean proposatu zuten arren, teoriaren hedapen adierazgarriena Eric Lennebergen “*Biological Foundations of Language*” (1967) lanaren ondorioz gertatu zen. Azken autore honen arabera, pubertarora iristean garunak plastikotasuna galtzen du eta, ondorioz, hizkuntzaren jabetasun prozesua lermatzen da. Hizkuntza pubertaroa aurretik berenganatu ezean, hizkuntzaren zenbait alderdi ezingo dira erabat menderatu.

ikasleek ulermen eta adierazpen idatzian emaitza hobek eskuratzen dituztela frogatu dute autore batzuek (Corpas Arellano, 2013).

- Sarrera goiztiarrak ez du abantailarik bultzatzen ikasleek bukaeran erdietsiko duten ingeles mailan.

Euskal Herriko Unibertsitateko *REAL*² taldeak burututako ikerketak lau urterekin ingelesa ikasten hasi zirenek, nola ulermen eta ekoizpen gaitasunetan hala alderdi fonetiko eta sintaktikoetan, gainerako ikasleek baino maila apalagoa zutela erakutsi zuten. Alabaina, honek ez du esan nahi ingelesaren sarrera goiztiarra ez denik formula baliagarria. Baliteke haur txikiek hasierako etapetan eleaniztasunaren abantailez etekinik ez ateratzea, eta ingelesaren gaitasun-mailan eragin positiboa aurrerago azaltzea (Cenoz, 2003).

1.1.2. Ingelesa

Sarrera goiztiarra defendatzen dutenek, oro har, ingelesak mundu mailan duen nagusitasuna onartu eta haurren aukerak (ezagutzarakoak, lanerakoak, komunikaziorakoak, etab) handitzen dituen tresnatzat interpretatzen dute. Bestalde, irakasleek eta gurasoek ingelesa lau urterekin ikasten hasten diren haurrek ingelesaren ikaskuntzarekiko jarrera baikorrak garatzen dituztela diote. Horrela, adin txikiek adin nagusiek baino jarrera positiboagoak dituzte hiru hizkuntzekiko. Hala ere, garrantzitsua da datuak biltzen jarraitzea, ikasleen jarreraren bilakaera nolakoa den aztertzeko. Izan ere, jarrerak hizkuntzaren ikaskuntza prozesuan duten garrantzia inork zalantzan jartzen ez duen arren, prozesuan zehar jarrera horiek duten eboluzioari buruzko ikerketak murrizak dira. Hasiera batean edozein hizkuntzarekiko jarrera baikorra sustatzea ez da zaila, jarrerok denboran zehar mantentzea baizik (Lasagabaster, 2003).

Ingelesarekiko jarrera askoz kritikoagoa agertzen dute, aldiz, sarrera goiztiarraren aurkakoek, zeintzuek hizkuntza menderatzaile eta inposatutzat jotzen duten. Autore batzuek ingelesa *lingua franca*³ izateak konnotazio politikoak dituela defendatzen dute

² REAL (*Research in English Applied Linguistics*) 13 partaidez - Jasone Cenoz, Aintzane Doiz eta David Lasagabaster beste beste - osatutako ikerketa taldea da, beraien aztergai nagusia ingelesaren aspektu ezberdinen jabekuntza prozesua delarik.

³ Ama-hizkuntza desberdinetako pertsonen arteko harremanetan elkar ulertzea ziurtatzeko hautatzen den hizkuntza.

(Hall eta Eggington, 2000). Ingelesa atzerriko hizkuntza gisa irakastea, beraz, ingelesaren hegemonia bultzatzen duten hizkuntza-politiken ondorio da. Nagusitasun honek hizkuntza- eta kultura- aniztasuna kolokan jartzen ditu, desagertzeko zorian dauden hizkuntzen kalterako. Horrela, EAEko testuinguruan, ingelesak egoera gutxituan dagoen euskarari negatiboki eragiten diola uste du zenbaitek. Hezkuntza testuinguruan euskararen presentzia murrizteaz gain, ikasleek etorkizunean agertuko duten euskararekiko jarreran eragin negatiboa izango du (Lasagabaster, 2007).

1.1.3. Euskara/gaztelania

Aldeko jarrera agertzen dutenek ingelesaren sarrera goiztiarrak euskararen eta gaztelaniaren garapenean eragin negatiborik ez duela defendatzen dute. Izan ere, zenbait azterketek (Arzamendi eta besteak, 2001; Cenoz, 2003; Egiguren, 2006) erakutsi dute ingelesaren sarrera goiztiarrak ez duela bi hizkuntza ofizialen garapena eragozten. Lau urterekin ingelesa ikasten hasteak ez dakar kalterik euskararen eta gaztelaniaren gaitasun-mailan. Bestalde, hiru hizkuntzen artean ez da kode nahasketa esanguratsurik ematen, eta ingelesa goiz ikasi dutenen eta beranduago hasi direnen artean ez dago alderik (Cenoz, 1998). Horrela, hirugarren hizkuntza oztopoa izan beharrean, haurren garapen linguistikorako eta kognitiborako esperientzia aberasgarria da.

Kontrako muturrekoek, berriz, ingelesaren sarrera goiztiarra hizkuntza gutxitua den euskararentzat oztopoa dela agertzen dute. Esaterako, Ruiz Bikandik (1998) ingelesa goiz ezartzeak gaztelaniadun haurren euskararen garapena kaltetzen duela defendatzen du, euskara behar beste landua izan gabe ingelesarekin hasten baitira. Horrez gain, sarrera goiztiarrak gainkarga kognitiboa inplikatzeko duela argudiatzen du, haurrei hiru hizkuntzetan hausnartzera behartzen baitzaie.

1.2. Jarreraren neurketa

Edonola ere, jarrerak aztertzea konplexua eta zaila da, objektiboki behagarriak eta neurgarriak ez baitira. Arestian aipatu bezala, jarrerak ezin daitezke zuzenean neurtu, ondorioz, portaeratik inferitu behar dira. Hala ere, jendearen jarrerak neurtzeko zenbait tresna daude, zeintzuen artean egunerokoak, diskurtsoaren analisia, inkestak eta galdetegiak nabarmentzen diren (Lasagabaster, 2003). Era berean, azken hamarkadetakoa aurrerapen teknologikoek jarrerak aztertzeko bide berriak zabaldu dituzte. Metodo

konplexu horien adibide dira aurpegiko muskulaturaren ordenagailu bidezko analisia edota erantzun kardiobaskularren kontrol hertsia. Dena den, galdetegia da oraindik ere jarrerak ezagutzeko teknika ezagunena eta ohikoena. Gainera, asko dira galdetegiak lagin zehatz baten hizkuntza-jarrerak ikertzeko bitartekorik egokiena direla uste dutenak (Lasagabaster, 2003).

Galdetegi horietako galderak, oro har, bi motatakoak izan ohi dira: batetik, galdera irekiak, zeintzuek erantzun askatasuna ematen duten, eta bestetik, erantzun zehatz batzuetatik bat hautatzea eskatzen duten galdera itxiak. Bai mota batekoek baita bestekoek ere alderdi positiboak eta negatiboak dituzte. Galdera irekiek konplexutasun handiagoko erantzun sorta biltzeko aukera eskaintzen dute, baina hauen kodifikazioa zaila da. Hori dela eta, galdera itxiko galdetegiak erabili ohi dira, zeintzuen kodetzea erraza den. Gisa honetako galdetegiak aurkezten duten desabantailarik nagusiena erantzulea ikertzaileak proposatzen dituen terminoak eta kontzeptuak erabiliz erantzutera behartua dagoela da, norberaren ideiak lantzeko askatasuna eragozten zaiolarik.

2. Helburuak eta hipotesiak

Oinarri teorikoan landu berri dena aintzat hartuz, gauzatuko den ikerketaren abiapuntu diren helburu nagusiak ondorengoak dira:

- Irakasleek, orokorrean, ingelesaren sarrera goiztiarrari buruz duten jarrera ikertzea.
- Irakasleek sarrera goiztiarrari buruz duten jarrera defendatzeko erabiltzen dituzten argudioak ezagutzea.
- Ingeleseko irakasle espezialistek eta gelako tutoreek sarrera goiztiarrari buruz duten jarrera alderatzea.
- Sarrera goiztiarrarekiko jarreraren eragiten duten aldagai esanguratsuenak zehaztea.

Helburu horiek betetzeko asmoarekin honako hipotesi hauek izango dira lana bideratzeko lagungarri:

1 HP: Irakasleek, orokorrean, ingelesaren sarrera goiztiarrarekiko jarrera baikorra agertuko dute. Hezkuntza testuingurua eta egoera soziolinguistikoa, hein handi batean, jarrera baikorraren oinarrian daude.

2 HP: Sarrera goiztiarrari buruzko ikerketen emaitzetan oinarritu beharrean, gizartean hedatutako aurreiritzi eta sineskeretan oinarrituko dute arrazoiketa. Hain zuzen ere, adina izango da sarrera goiztiarra defendatzeko erabiliko dituzten argudioen artean erabiliena.

3 HP: Ingeleseko irakasle espezialisten eta tutoreen jarreraren ez da alde nabarmenik emango. Ezberdintasunik esanguratsuena argudioetan emango da, ingeleseko espezialistek euren jarrera defendatzeko arrazoi sendoagoak erabiliko baitituzte.

4 HP: Norbanakoaren ezaugarriek eta aldagai soziolinguistikoek ingelesaren sarrera goiztiarrarekiko jarrera baldintzatuko dute. Adina, espezialitatea (ingeleseko/tutorea) eta sexua erabakigarriak izango ez diren arren, ama-hizkuntza, hiru hizkuntzetako (euskara, gaztelania eta ingeleseko) gaitasun-maila, beste hizkuntza batzuen ezagutza (euskara, gaztelania eta ingelesaz gain) eta ingeleseko hitz egiten den herrialdeetan egonaldiak aldagai baldintzagarriak izango dira.

3. Metodologia

Laginari buruzko datuak eta informazioa biltzeko galdetegiak erabili da. Galdetegiaren helburu nagusia erantzunetatik datu kuantitatiboak jasotzea da, aztergai den laginaren alderdi esanguratsuenak deskribatzeko.

Galdetegiak bi multzo handitan bana daitezke: galdetegi analitikoak eta galdetegi deskriptiboak. Lehenengok lagin baten baitako azpi-taldeen konparaketa dute helburu, batzuen eta besteen artean ematen diren aldeak ikertzeko. Bigarrenek, aldiz, lagina bere osotasunean hartuta aztertzen dute eztabaidagaia, estimazio orokorrak lortzeko. Hezkuntza arloan, beraz ikerketa honi dagokion esparruan, bereizketa hau ez da aintzat hartzen, ohikoa baita aztertutako datuek bi aldeak jorratzea (Lasagabaster, 2003).

Bestalde, denboraren ikuspegitik, galdetegiak bi taldetan bana daitezke: zehar-galdetegiak eta luzera-galdetegiak. Lehenengo motakoetan datuak aldi bakarrean eta epe laburrean biltzen dira, galdetegi burutu den unean presente dauden fenomenoak jasotzeko. Luzera-galdetegietan, berriz, denboran zehar, gutxienez bitan, burutuko da galdetegiak, populazioan eman daitezkeen aldaketak aztertzeko (Lasagabaster, 2003). Ikerketa hau, hortaz, zehar-galdetegiak deritzanen barruan kokatzen da.

Era berean, eta aurretik esan bezala, jarreraren neurketarako erabilitako galdetegiak bi multzotan bana daitezke: galdetegi irekiak eta galdetegi itxiak (Lasagabaster, 2003). Ikerketa honetan erabilitako galdetegia bi mota horiek uztartzetik lortu da, bataren desabantailak bestearekin nolabait konpentsatzeko helburuz. Galdera itxiak erraz erantzun eta denbora gutxian burutzeaz gain, erantzunak kuantifikatzeko errazak dira. Galdera irekien erantzunak sailkatzeko eta ebaluatzeko zailak diren arren, naturaltasuna eta iritzi askatasuna dituzte ezaugarritzat. Bi mota horiek bateratzearen arrazoi nagusia, beraz, erantzuleari galdetegi itxian emandako bat-bateko iritziak galdera irekien bitartez sakontzeko eta justifikatzeko aukera ematea da.

Ikerketa honetarako erabili den galdetegia Lasagabasterrek (2003) ikasleen hizkuntza-jarrerak aztertzeko erabilitakoa du eredu, zeina Bakerrek 1992an sortu zuenaren moldapena den. Izan ere, jadanik frogatuak eta baliozkotzat joak izan diren baliabideak erabiltzea da neurketa tresnetan aintzat hartu beharreko kontu garrantzitsuenetarikoa. Gainera, ikerketarako berariaz sortu den galdetegiaren eraginkortasuna egiaztatzeko, azterketan parte hartzen ez zuen irakasle batekin frogatu zen. Saiakera hori tresnaren indarguneak eta ahulguneak hauteman eta beharrezko aldaketak egiteko baliagarria izan zen. Horrela, galdera irekiak idatzi beharrean, elkarrizketa bidez erantzuteko erabakia hartu zen. Idatziz emandako erantzunak azalean gelditzen ziren, aldiz, galdera berdinak elkarrizketa erdi-egituratuaren bidez planteatutakoan gaia sakontasun gehiagoz lantzea lortu zen. Galdera zehatz eta planifikatuetatik abiatuz, unean azaltzen diren galderak lantzeko abagunea eskaintzen duen teknika honek informazioa xehetasun handiagoz eskuratzeko aukerak handitzen ditu.

Moldaketaren ondoren bi dira, hortaz, ikerketan erabili diren tresnak: galdetegia eta elkarrizketa.

Galdetegiaren azken bertsioa hiru ataletan banatua dago (1. eranskina). Lehenengoa, parte-hartzaileei buruzko informazio pertsonala biltzeko galderek osatzen dute; adina, sexua, espezialitatea (ingeles irakaslea/tutorea), ama-hizkuntza, bizilekua, hiru hizkuntzen (euskara, gaztelania eta ingelesa) gaitasun-maila, ingelesa hitz egiten den herrialdeetan egonaldiak, eta beste hizkuntza bat(zu)en ezagutza, besteak beste. Bigarren ataleko galderek, bestalde, parte-hartzailearen hizkuntza ohiturei erreferentzia egiten diete; ingurune hurbileko pertsonekin (lankideak, ikasleak, lagunak, etab) eta komunikabideetan EAEko bi hizkuntzez egiten duen erabilerari hain zuzen ere.

Hirugarren atalak, berriz, eleaniztasun goiztiarrari buruzko jarrerak neurtzen ditu; horretarako, parte-hartzaileak 20 itemi buruzko bere adostasun-maila agertu behar duelarik (2. eranskina).

Elkarrizketari dagokionez, sarrera goiztiarra da eztabaidagaia, zeinetan parte-hartzaileari hiru auziren inguruan duen iritzia arrazoitzeko eskatzen zaion (3. eranskina). Galderen erantzunak zehaztasunez ikertzeko helburuz, elkarrizketak grabatu eta transkribatu egin dira (4. eranskina).

4. Lanaren garapena

4.1.Galdetegia

4.1.1. Prozedura

Martxoaren bukaera aldera, hautatutako irakasleei ikerketaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien eta banakako hitzorduak zehaztu ziren. Hasiera bateko asmoa hitzordu guztiak apirileko lehenengo bi asteetan zehar leku hartzea izan zen arren, arrazoi ezberdinak medio, Aste Santuko oporretatik bueltara atzeratu behar izan ziren horietako batzuk. Hortaz, ikerketa apirilean eta maiatzean zehar burutu zen.

Adostutako ordu eta egunetan irakasleekin bildu eta galdetegia erantzuteko beharrezko denbora ematen zitzaien. Irakasleek galdetegia betetzen zihardutela, ikertzailea albo batera mantentzen zen galdetuen anonimotasuna gordetzeko eta beraien iritzietan eraginik ez izateko.

4.1.2. Lagina


Inazio Zubizarreta Herri Ikastetxea Arratia bailarako Igorre (Bizkaia) herrian kokatutako D ereduko eskola publikoa da. Eusko Jaurlaritzak sorturiko ingelesaren sarrera goiztiarreko programan murgilduta dago ikastetxea. “*Dip, Dip, Dip*” deritzon proiektu honetan lau eta bost urteko geletan 45 minutuko bi saiotan ingelesa lantzen dute.

Arestian aipatu bezala, ikastetxeko irakasleek, orokorrean, sarrera goiztiarrari buruz duten aburua ezagutzea da ikerketaren helburu nagusia. Iritzi aniztasuna eskuratzeko,

nola Haur Hezkuntzako hala Lehen Hezkuntzako irakasleek parte hartu dute, zeintzuk beraien naturaltasunagatik eta kritikotasunagatik hautatuak izan diren. Izan ere, ikastetxeko irakasleen artean usteak adierazteko eragozpenik ez dutenak bilatu dira, iritziak agertzeko orduan, oro har, askatasunez hitz egiten dutenak hain zuzen ere. Hala ere, ingeleseko irakasleen kasuan ez da aukeraketarik egin, ikastetxean dauden hiruen parte hartzea eskatu baita (nahiz eta horietako batek – zuzendaritza taldeko partaide izateagatik – orain klaserik ematen ez duen). Esan beharra dago, ikerketan parte hartzea errefusatu duen irakaslerik ez dela egon. Galdetuak izan diren irakasle guztiek ikerketarenganako jarrera baikorra agertu dute eta laguntzeko prest azaldu dira.

Espezialitateari dagokionez, azterketan parte hartu duten irakasle gehienak (%70) tutore dira. Gertaera hau ikastetxeko errealitatearen isla zuzena da, izan ere, 43 irakasletik soilik 3 dira ingelesekoak. Era berean, berdina gertatzen da sexuaren aldagaiari aintzat hartzen badugu. Hau da, ikerketan parte hartu duten irakasle gehienak (%80) emakumeak izan dira, eskolako orokortasunean gertatzen den legez.


Laginaren %100ak du euskara ama-hizkuntzatzat. Hiru hizkuntzen gaitasunari dagokionez, espero daitekeen bezala, euskara da mailarik altuena agertzen duena. Irakasle guztiek, batek izan ezik, oso ondotzat jotzen dute beraien euskara maila. Ondo markatutako irakaslea ingeleseko irakasleetako bat da, eta hizkuntza guztietan ondo gisa jotzen du bere trebetasuna. Bestalde, gaztelaniari erreparatzen badiogu, gehiengoak (%60) oso ondotzat kalifikatzen du bere burua, baina alde txikia dago gaztelania maila ona dutela diotenekin (%40). Azkenik, ingeles konpetentzia da maila aniztasun handiena agertzen duena (1. grafikoa).



1. grafikoa. Hiru hizkuntzetako gaitasun-mailak

Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesaz gain, frantsesa dakienik ere badago. Hiru dira zehazki frantsesa dakiten irakasleak, bi tutore dira eta bestea, aldiz, ingeleseko irakaslea.

Guztiak izan dira noizbait ingelesa hitz egiten den herrialderen batean, baina arrazoi ezberdinak direla medio. Gehiengoa (%80) opor kontuak direla eta egon den bitartean, badago ikasketak burutzea edo ingeles maila hobetzea helburu zuen bidaia baten bidez egoniko irakaslerik ere (2. grafikoa).



2. grafikoa. Egonaldien arrazoiak

4.1.3. Emaitzak

a) Lehenengo hipotesia

Irakasle guztiak ados daude euskara, gaztelania eta ingelesa hitz egitea garrantzitsua izatearen ideiarekin, eta gehiengoak (%80) euskaldun guztiek hiru hizkuntza horiek jakin beharko lituzketela deritzo. Aldiz, iritzi banaketa dago Euskal Herrian euskara, gaztelania eta ingelesa elkarrekin bizi daitezkeenari buruzko ideian (3. itema). Halaber, iritzi banaketa hori ingelesaren nagusitasunari dagokion galderan ere azalerazi da (4. itema). Hala ere, ia irakasle guztiei (%80) euskara gaztelaniaren eta ingelesaren gainetik gailentzea gustatuko litzaieke (7. itema).

	GA	A	EAEK	K	GK
3. itema	3	3	2	1	1
4. itema	1	4	2	2	1
7. itema			2	6	2

1. taula

Datu hauek kontuan hartuta eta sarrera goiztiarraren auzira joz, esan beharra dago, guztiek uste dutela haurren garapenerako aberasgarria dela eta abantailak dakartzala. Onura horien artean, haurren ingeles maila hobe (%80) eta hizkuntzekiko jarrera positiboak (%90) baieztatzen dituzte. Gainera, hezkuntza testuinguru ezberdinetako haurrek abantaila horiez goza dezaketela berretsi du kopuru handi batek. Izan ere, sarrera goiztiarra testuinguru zehatzetan soilik baliagarria denaren ustearekin %90a ez dator bat. Irakasleek ez deritzote ingelesak euskararen bilakaera kolokan jartzen duenik, ezta haurren euskara eta gaztelania maila kaltetzen dituenik. Hala ere, sarrera goiztiarraren hedapen neurrigabea moda kontua besterik ez denaren ideiak zalantzak sortzen ditu. Joera orokorra (%70) kontrakoa pentsatzea den arren, oso aintzat hartzekoa da erantzuna zehaztu ez dutenen kopurua (%30).

b) Bigarren hipotesia


Gizartean hedatuta dauden zenbait uste baieztatu dituzten arren, beste hainbat ideiarekin aurka agertu dira. Horrela, gehiengoak (%85) haurrek hiru hizkuntzak aldi berean (11. itema) eta nahastu gabe (14. itema) ikas ditzaketela uste du. Bestalde, badirudi, adinaren kontuak sortzen dituela zalantza dezente, 12. eta 15. itema baitira EAEK gehien biltzen dituztenak. Edonola ere, %60ak ingelesa ikastea haurrentzat helduentzat baino errazagoa dela azaldu du (12. itema). Eta uste hori helduek hizkuntzak ikasteko haurrek baino erraztasun handiagoa dutela ez onartuz berretsi dute (15. itema).

	GA	A	EAEK	K	GK
11. itema	5	4	1		
12. itema	3	3	4		
14. itema		1	1	3	5
15. itema			3	4	3


2. taula

c) Hirugarren hipotesia


Nola tutoreen hala espezialisten ingelesaren sarrera goiztiarrarekiko jarrera baikorra kontuan hartuz, iritzi kontrajarriak azalerazi ditzaketen lau item aztertu dira.




3. grafikoa. 4. itema



4. grafikoa. 6. itema



5. grafikoa. 19. itema



6. grafikoa. 20. itema

Grafikoetan ikus daitekeen bezala, tutoreen eta ingeleseko irakasleen iritzi eta usteetan ez dago ezberdintasun nabarmenik. Sarrera goiztiarrak ingelesaren nagusitasuna bultzatzen duenaren ideia da batzuen eta besteen artean azaltzen den alderik esanguratsuena. Izan ere, ingeleseko hiru irakasletik bi nagusitasun horren aurka agertzen dira, aldiz, tutore bakarrak deritzo hori. Bestalde, hizkuntzen ezarpenari buruzko ordenan espezialitateak eraginik ez duela esan daiteke.

d) Laugarren hipotesia

Adina salbuespen, irakasle guztiek oso egoera homogenea aurkezten dute. Guztiek dute euskara ama-hizkuntzatzat, eta ingeleseko irakasleetako bat izan ezik, gainerakoak zonalde euskaldunetan bizi dira. Irakasle bakan honen kasuan, ikastetxeko testuingurutik kanpo, gaztelania nagusitzen da lagun eta auzokoekin jarduteko hizkuntza gisa. Beste irakasleen egunerokotasunean, berriz, euskarak pisu handia du. Izan ere, nola harreman pertsonaletan hala komunikabideetan euskara da gehien erabiltzen duten hizkuntza.

Bestalde, irakasleen %80a hirueleduna da, euskara, gaztelania eta ingelesa ezagutzen baitituzte (tutore baten kasuan ingelesa beharrean frantsesa litzateke bere H3).

Galdetegia osatu duten bi irakaslek (%20), bata tutorea eta bestea ingeleseko irakaslea, ezagutzen dute laugarren hizkuntza bat (frantsesa).

Datu hauek aintzat hartuz, esan dezakegu, beraz, irakasleen profila antzekoa dela kasu guztietan. Beharbada, homogeneousitasun horren ondorioz ez da sarrera goiztiarrarekiko jarrera baldintzatzen duen aldagairik identifikatu.

4.2.Elkarrizketa

4.2.1. Prozedura

Arestian aipatu bezala, elkarrizketak apirilean eta maiatzean zehar burutu ziren. Hitzorduetan, lehenik eta behin, ikerketaren gaia eta ikuspegia zehazteko, galdetegia idatziz erantzuteko tartea ematen zitzaien. Galdetegia bukatutakoan elkarrizketari ekiten zitzaion, zeinak bataz beste bost minutu eta erdiko iraupena izaten zuen. Hala ere, tutoretako bati burututako elkarrizketa salbuespen gisa aipatu beharra dago, ia 12 minutu iraun baitzuen hizketaldiak.

4.2.2. Lagina

Elkarrizketak burutzeko, galdetegia bete zuten irakasleen erdiak aukeratu ziren. Horrela, aurretik aipatutako lagina erdira murriztu zen. Kasu honetan, bost elkarrizketatuetatik hiru tutoreak dira eta gainerako biak ingeleseko irakasleak. Sexuari dagokionez, bi gizonak eta hiru emakumeak osatzen dute laginaren osotasuna.

4.2.3. Emaitzak

a) Lehenengo hipotesia

Irakasle guztiek sarrera goiztiarrarekiko jarrera baikorra agertu dute. Ingelesa lau urteko geletan ezartzea positibotzat eta aberasgarritzat jotzen dute. Sarrera goiztiarrak haurrengan onurak bultzatzen dituela uste dute. Ekarpen positiboak aipatzerakoan, ingeles maila hobea lortzearen ideian bat datoz guztiak. Bestalde, elkarrizketatu bakar batek nabarmendu du ingelesaren ikaskuntzak ikasle goiztiarren garapen kognitiboan sustatzen dituen onurak: haurren ikuspegia zabaltzen du, ingelesak mundua ulertzeko

eta interpretatzeko beste ikuspegi bat eskaintzen baitie. Hala ere, guztiek esan dute sarrera goiztiarrak haurren garapenean eragin negatiborik ez dakarrela. Horrela, ingelesak euskararen bilakaera oztopatzen ez duela azpimarratu dute. Baina aurreikusitakoaren aurka, ideia horretan ez dute testuinguruko aldagaiek eragin. Izan ere, guztiek uste dute sarrera goiztiarra testuinguru anitzetarako baliagarria dela, baita euskararen presentzia murrizta den zonalde erdaldunetarako ere. Gizonezkoek beraien iritzia argudiatzeko arrazoirik azaldu ez duten arren, euskarari lehentasuna eman behar zaionaren ideian bat datoz. Gurea den euskarak hezkuntzaren ardatz izan beharko lukeela diote, berarekiko diskriminazio positiboa eginez eta berarekiko jarrera baikorrak sustatuz. Era berean, ingeleseko irakasleek ez dute uste ingelesak euskarari lekua kentzen dionik. Modu honetara, ingelesari eskaintzen zaion denbora izan dute erreferentziazat kaltegarria ez dela argudiatzeko. Beraien ustez, sarrera goiztiarraren bidez asteen lantzen den ordu eta erdia ez dira nahikoa euskara kaltetzeko. Gainera, irakasleetako batek ingelesak gainerako bi hizkuntza ofizialen garapenean lagun dezakeela defendatzen du, ekarpen positiboak egiten dizkiela baiteritzo.

b) Bigarren hipotesia

Irakasle guztiek esperientziatik hitz egin dute, hau da, beraien bizipena izan dute abiapuntu eta irizpide sarrera goiztiarraz hitz egiteko. Bost elkarrizketatuek beraien garaiko (ingeleseko irakasleetako batek, bere garaia beharrean, duela 12 bat urteko egoera izan du erreferentziazat) eta gaur egungo ingeleseko irakaskuntzaren arteko nolabaiteko konparaketa egin dute. Batez ere ikasleen adina eta gaitasun-maila alderatu dituzte, datu horiek beraien arrazoiketaren oinarri nagusi bihurtu dituztelarik. Irakasle guztiek goiz hasteak maila altuagoa lortzea ahalbidetzen duenaren sineskera aipatu duten bitartean, irakasle bakarrak agertu du, esplizituki, txikiagoek hizkuntzak ikasteko erraztasun handiagoa dutela. Erabilitako gainerako beste argudioen artean bi izan dira aipatuena eta esanguratsuenak: batetik, hizkuntzarekin kontaktuan urte (eta hortaz, ordu) gehiago egoteak ikaskuntza hobea suposatzen duela; eta bestetik, sarrera goiztiarrak ahoskeran eta ulermenean abantailak dakartzala.

Hortaz, espero zen bezala, irakasleen iritziaren funtsa datu objektiboetan beharrean, sineskeretan oinarritzen da. Gainera, irakasleek errealitate hori oso ondo azalerazi dute, diotena beraien iritzi eta ikuspuntua dela argi markatu baitute uneoro (nire iritziz, nik uste dudanez, nire ikuspegitik, iruditzen zait, pentsatzen dut, deritzot... bezalakoak

erabiliz). Hala ere, esan beharra dago, beraien ideietako batzuek badutela oinarri teoriko sendoa. Hau da, nahiz eta beraiek kontziente ez izan, plazaratutako ikuskera batzuen muina hizkuntzei buruzko teoria zientifikoetan aurkitzen da. Esaterako, tutore bat eta ingeleseko irakasleetako bat jakintzen eta trebezien transferentziaz mintzatzean, Cummins-en “*interdependentziaren teoria*” (1980) jarraitzen dute. Tutoreari ingelesak haur erdaldunen edo etorkinen euskararen bilakaera oztopatzen duenez galdetzean, ezezko erantzuna eman du ondorengo arrazoiketa erabiliz: “Haur horiek gazteleran oinarri ona badute, hau da bere ama-hizkuntzan egitura onak badituzte, beste batean ere izango dituzte. Gaztelaniako egiturak euskararen eta ingelesean ere izango dituztela esan nahi dut”. Era berean, ingeleseko irakasleak ingelesa euskararentzako oztopoa beharrean, laguntza dela eta bere ikaskuntzak gainerako bi hizkuntzei ekarpen positiboak egiten dizkiela baieztatu du. Horrela, bi argudio horiek bat datoz Cummins-en teoriarekin. Izan ere, “*interdependentziaren teoriaren*” arabera, H1aren eta H2aren artean ematen den trebetasunen transferentzia norabide bikoitzekoa da, beti ere H2a ikasteko motibazio nahikoa baldin badago.

c) Hirugarren hipotesia

Tutoreen eta ingeleseko irakasleen jarreraren ez da alderik egon, guztiak sarrera goiztiarraren alde agertu baitira. Haur Hezkuntzan ingelesa ezartzea egoki ikusten dute denek, baina banaketa argia dago ingelesaren lanketari eskaintzen zaion denboraz galdetzean. Tutoreek nahikoa deritzoten bitartean, ingeleseko irakasleek denbora gehiago eskainiko liokete. Gainera, hauetako batek argi utzi du denbora hori frekuentzia handiagoko saio laburretan banatuko lukeela. Bere ikuskera justifikatzeko ikasle txikiaren arreta eta kontzentrazioa mantentzeko gaitasun murrizaren arrazoia erabili du (*attention span*).

Bestalde, espero zenaren kontra, tutoreen eta ingeleseko irakasleen artean, argudioei dagokienez, ez da desberdintasun nabarmenik eman. Ingeleseko irakasleen kasuan, argi utzi nahi izan dute beraien lan esperientzia ikasle helduekin dela eta, beraz, gutxi dakitela sarrera goiztiarra gauzatzen den moduz. Beharbada, txikiarekin ez aritze horrek eragiten dien ez-jakintasunak xehetasunetan sartzea eragotzi die. Hori dela eta, tutoreen eta espezialisten arteko ezberdintasun bakarra esperientziak emandako datuetan aurkitzen da. Printzipioz, ingeleseko irakasleek haurren gaitasun-maila hobe dela

epaitzeko datu errealagoak eta objektiboagoak dituzte. Hortaz, zentzu horretan, beraien argudioek pisu handiagoa dutela esan daiteke.

d) Laugarren hipotesia

Sarrera goiztiarrarekiko jarrera baldintzatzen duen aldagairik ez da aurkitu. Adinari dagokion esparrua nahiko zabala izan da, gazteenaren eta helduenaren artean, gutxienez, hamaika urteko aldea egon delarik. Adina albo batera utzirik, esan beharra dago, elkarrizketatutako irakasleen profila oso antzekoa izan dela. Irakasle guztien ama-hizkuntza euskara da eta zonalde euskaldunetan bizi dira (lau Arratian eta bat Busturialdean). Era berean, parte-hartzaile guztiek ingelesa dakite, eta horrez gain, ingelesa hitz egiten den herrialderen batean izan dira noizbait. Ezberdintasuna agertzen duen datu bakarra beste hizkuntza bat(zu)en (euskara, gaztelania eta ingelesaz gain) ezagutzari erreferentzia egiten diona da. Izan ere, ingeleseko irakasleetako batek soilik daki laugarren hizkuntza bat (frantsesa). Edonola ere, orokorrean, elkarrizketatuak izan diren bost irakasleek egoera oso antzekoa aurkezten dute. Hortaz, baliteke, parekotasun hori beraien antzeko jarreraren arrazoia izatea.

5. Ondorioak

Europako Kontseiluak eleaniztasuna sustatzen duen neurrian, gero eta garrantzia handiagoa hartu du atzerriko hizkuntzen irakaskuntzak. Ondorioz, azken urteotan, gure hezkuntza sisteman ingelesaren sarrera goiztiarra praktika hedatua bilakatu da. Batzuentzat eleaniztasun osorako bide egokia den bitartean, beste batzuentzat ingeles kompetentzia handitzeko formularik eraginkorrena denetz frogatu gabe zabaldutako moda besterik ez da.

Gizartean leku hartzen duen eztabaida honen erdian dago haurra. Testuingurutik helarazten zaizkion mezu eta jarreraren bitartez eraikiko ditu hizkuntzekiko bere jarrerak. Hortaz, pixkanaka garatzen eta osatzen doazkion jarreretan ikasleen inguruko pertsona esanguratsuek berebiziko garrantzia dute. Adierazgarriak zaizkion pertsonen artean irakasleak izan dira lan honetan aztergai, aldagai ezberdinengan eragiteko gaitasun nabarmena baitute.

Irakasleek, orokorrean, ingelesaren sarrera goiztiarrarekiko jarrera baikorra dute, funtsean, haurren garapenerako onuragarria eta aberasgarria dela argudiatzen dutelarik. Horrela, sarrera goiztiarra haurren ingeles maila hobea lortzeko bidetzat interpretatzen dute. Hizkuntzarekin ordu gehiago harremanetan egoteak, ingelesaren ikaskuntza hobea suposatzeaz gain, haurren ahoskatzeko eta ulertzeko gaitasuna areagotzen ditu. Hala ere, esan beharra dago, adina adierazgarria dela beste alderdi batzuekin uztartzen bada: irakasten denaren kalitatea, irakasteko modua, hizkuntzari eskaintzen zaizkion orduak eta testuinguru bakoitzaren errealitatea (Fons, 2011). Horrenbestez, ingelesaren sarrera goiztiarra ez da ekintzarako bide bakarra. Sarrera goiztiarraren osagarriak diren beste formula batzuk kontsideratu behar dira, hala nola, ingelesarekiko esposizio intentsiboagoa edota ingelesa komunikazio eta ezagutzarako hizkuntza gisa erabiltzea (Cenoz, 2003).

Bestalde, irakasleen euskararen aldeko jarrerak ez du ingelesarekiko duten ikuspegian negatiboki eragiten. Badirudi ingelesak mundu mailan duen nagusitasunak bere erabilgarritasuna eta ikastearren garrantzia justifikatzen dituela. Halaber, euskarari dagokion lehentasuna eta garrantzia emanez, ingelesak ez duela ikasleen euskara gaitasuna oztopatzen arrazoitzen dute. Ingelesaren sarrera goiztiarrak leku hartzen duen hezkuntza testuingurua ikertu behar den arren, gutxieneko baldintzak errespetatuz, ingelesa eta euskara EAEko hezkuntza sisteman hizkuntza osagarriak direla baieztatu daiteke. Izan ere, eleaniztasun goiztiarrak ez du hizkuntza gutxituarekiko desabantailarik suposatzen (Lasagabaster, 2007).

Modu honetara, sarrera goiztiarrarekiko jarrera baldintzatzen duen aldagairik ez da aurkitu. Nola ingeleseko irakasleek hala tutoreek ikaskuntza goiztiarrari buruzko pareko ikuspegia dute. Iritzi ezberdintasun esanguratsuena ingelesari eskaini beharko litzaizkiokeen ordu kopuruan datza. Tutoreek ordu eta erdia ondo deritzoten bitartean, ingeleseko irakasleak hizkuntza ordu gehiagoz jorratzearen aldeko agertzen dira.

Edonola ere, irakasleek beraien jarrera defendatzeko erabili dituzten argudioen eta justifikazioen oinarrian gizartean hedatutako sineskerak daude. Sineskerak oso aintzat hartzekoak dira, askotan, aurreiritziak eta usteak islatzen baitituzte. Aurreiritzi hauetako askok ezkutuko jarrerak azaleratzen dituzte, eta aldi berean, jarrerok, sarritan, ezjakintasunaren ondorio dira. Informazioa ez da gizartera iristen, eta ondorioz, aurreiritzi askok oraindik bizirik diraute. Alabaina, ezin daiteke aipatu gabe utzi

irakasleen ideietako batzuen abiapuntua Cummins-en “*interdependentziaren teoria*” bezalako froga zientifikoetan dagoela.

Hala ere, hirugarren hizkuntza Haur Hezkuntzatik berenganatzeari buruzko ikerketak murrizak dira. Programa eleaniztunei buruzko ikerketak oraindik ere hasierako faseetan daude, beraz, programa horietan gertatzen ari denaren ezagutza sistematikorik ez dago (Lasagabaster, 2007). Ondorioz, esperientzia eleaniztunen aurrean sortzen diren galderei behin betiko erantzunak (posible den neurrian behintzat) eman ahal izateko ikertzen jarraitu behar da.

5.1. Ikerketaren mugak

Lehenik eta behin, emaitzen interpretazioak, berez, arriskutsuak direla esan beharra dago. Galdetegietatik eta elkarrizketetatik eskuratutako informazioa aztertzea eta ondorioak ateratzea zeregin zaila da. Hitz berdinek irakurketa ezberdina izan dezakete, zeina ikertzailearen ikuspegiaren arabera izango den. Zentzu honetan, hortaz, galdetegi erantzundako irakasleek ere interpretazioaren oztupoarekin topo egin dutela esan daiteke. Irakasle bakoitzak esaldiek ziotena ulertzeko bere perspektiba propioa erabili duenez, itemek hautatutako fokatzaren arabera esanahiak hartu dituztela pentsa daiteke. Gainera, ikerketan parte hartu duten irakasleen erdiak izan dute soilik elkarrizketa bidez beraien ikuspegia argitzeko aukera. Gainerakoei ere abagune berdina eman, emaitzen interpretazioa xehetasun handiagoz egin ahal izango litzateke. Halaber, Haur Hezkuntzan lanean diharduen eta esperientzia handiagoa duen ingeleseko irakaslea elkarrizketatzeak sarrera goiztiarrari buruzko informazio zehatzagoa eskuratzea ahalbideratuko luke.

Bestalde, lagina murrizta eta homoginoa izan dela kontuan izan behar da. Izan ere, azterketan parte hartu duten irakasleen profila oso antzekoa izan da, errealitatearen zati mugatua besterik ez dute ordezkatzeko. Beraz, ikerketa bera ezaugarri ezberdinetako testuinguruetan burutzea interesgarria litzateke. Metodologia berbera egoera desberdinetan eta ezaugarri anitzagoko lagin zabalago batekin erabiltzeak aztergaiaren eragiten duten faktoreak zehaztasun handiagoz identifikatzea ahalbideratuko luke.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Arzamendi, Jesús; Etxeberria, Juan; Baragorri, Xabier; Elorza, Itziar; Ball, Philip y Lindsay, Diana (2001). *A los 10 años de evaluación de la experiencia "Eleanitz inglés"*. Universidad de País Vasco y Federación Guipuzcoana de Ikastolas.
- Baker, Colin (1988). *Key issues in bilingualism and bilingual education*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Baker, Colin (1992). *Attitudes and languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Cenoz, Jasone (1998). "The influence of age on the acquisition of English: general proficiency, attitudes and code mixing", García Lecumberri, M.L. eta García Mayo, M.P. (eds): *Age and the Acquisition of English as a Foreign Language*, Clevedon, Multilingual Matters.
- Cenoz, Jasone (2003). El aprendizaje del inglés desde educación infantil: efectos cognitivos, lingüísticos y afectivos. *Revista-Forum sobre Plurilingüismo y Educación*.
- Corpas Arellano, María Dolores (2013). ¿Cuál es la edad idónea para empezar a aprender una lengua extranjera? *Philologica Urcitana*, 9, 43-55.
- Cummins, Jim (1980). The Cross-Lingual Dimension of Language Proficiency: Implications for Bilingual Education and the Optimal Age Issue. *TESOL Quarterly*, 14, 175-187.
- Doiz, Aintzane eta Lasagabaster, David (2004). The effect of the early teaching of English on writing proficiency. *International Journal of Bilingualism*, 8, 525-540.
- Egiguren, Izaro (2006). Atzerriko hizkuntza goiztiarraren eragina gaitasun eleaniztanean. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Elorza, Itziar (2006). Ikastolen "Eleanitz" Proiektua: Euskara ardatzat duen eleaniztasuna. *Jakingarriak: eleaniztasuna eskolan*. Mondragon Unibertsitatea.
- Europako Kontseilua (2001). *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment (CEFR)*. Strasbourg: Council of Europe. 2014-02-10ean hartua, hemendik: http://www.coe.int/t/dg4/linguistic/Source/Framework_EN.pdf
- Fons, Montserrat (2011). La presión del inglés en la formación lingüística infantil. *Aula de Infantil*.
- Gardner, Robert C. (1985). *Social Psychology and Second Language Learning: the role of attitude and motivation*. Great Britain: Edward Arnold Publishers.
- Goikotxea, Nekane (2006). *Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAE-ko hezkuntza eleaniztanean*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Gordon, Raymond (2005). *Ethnologue: Languages of the world*, 15. edizioa. Dallas, Texas: SIL International. Sareko bertsioa: <http://www.ethnologue.com/15>.
- Hall, Joan Kelly eta Egginton, William G. (2000). *The Sociopolitics of English Language Teaching*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Hernández-Campoy, Juan Manuel (2004). El fenómeno de las actitudes y su medición en sociolingüística. *Tonos digital*, 8.
- Irureta, Onintza (2007). Ingelesa bai, baina noiz eta nola?. *Argia*, 2115. 2013-12-10ean hartua, hemendik: <http://www.argia.com/argia-astekaria/2115/ingeleza-bai-baina-noiz-eta-nola>
- Lasagabaster, David eta Doiz, Aintzane (2003). "Maturational constraints in foreign language writing", García Lecumberri, María Luisa eta García Mayo, María Pilar (eds): *Age and the Acquisition of English as a Foreign Language*, Clevedon, Multilingual Matters.
- Lasagabaster, David (2003). *Trilingüismo en la enseñanza. Actitudes hacia la lengua minoritaria, la mayoritaria y la extranjera*.
- Lasagabaster, David (2007). Trilingüismo escolar: sobre la presencia del inglés en el sistema educativo vasco. 2013-12-10ean hartua, hemendik: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/artik20_1_trilinguismoa_07_06/es_trilingu/artik20_1_trilinguismoa_07_06.html
- Palomino, M^a Carmen (2012). Creencias, actitudes y motivación hacia el aprendizaje de ELE por parte de adolescentes sicilianos sin conocimientos previos de español. Estudio etnográfico-descriptivo en el contexto de una comunidad de la Sicilia sudoriental. *SUPLEMENTOS marcoELE*, 16.
- Ramos, Carmen (2007). *El pensamiento de los aprendientes en torno a cómo se aprende una lengua: dimensiones individuales y culturales*. Madrid: ASELE-CIDE.
- Ruiz Bikandi, Uri (1998). Euskara eta ingeleza batera lau urterekin? *Arbela*, 21, 30-33.

Bigarren atala: HIZKUNTZA OHITURAK

ZEIN HIZKUNTZA ERABILTZEN DUZU ZUK ONDORENGO PERTSONEKIN HITZ EGITEKO?

	Beti euskara	Euskara gaztelania baino gehiago	Euskara eta gaztelania	Gaztelania euskara baino gehiago	Beti gaztelania
Lankideak					
Ikasleak					
Seme-alabak					
Lagunak					
Auzokoak					

ZEIN HIZKUNTZA ERABILTZEN DUZU ZUK ONDORENGO EKINTZAK BURUTZEKO?

	Beti euskara	Euskara gaztelania baino gehiago	Euskara eta gaztelania	Gaztelania euskara baino gehiago	Beti gaztelania
Telebista					
Egunkaria					
Irratia					
Musika					
Zinema					

Hirugarren atala: ELEANIZTASUN GOIZTIARRA

ADIERAZI ONDORENGO BAIEZTAPENEKIN ADOS ZAUDENETZ. EZ DAGO ERANTZUN OKERRIK EZ ZUZENIK. ERABILI AUKERA HAUEK ERANTZUTEKO:

- GA** = Guztiz Alde
- A** = Alde
- EAEK** = Ez Alde Ez Kontra
- K** = Kontra
- GK** = Guztiz Kontra

(1) Garrantzitsua da euskara, gaztelania eta ingelesa hitz egitea.

GA A EAEK K GK

(2) Euskaldun guztiek euskara, gaztelania eta ingelesa jakin beharko lukete.	GA	A	EAEK	K	GK
(3) Euskal Herrian euskara, gaztelania eta ingelesa elkarrekin bizi daitezke.	GA	A	EAEK	K	GK
(4) Atzerriko hizkuntza gisa ingelesa ezartzeak ingelesaren nagusitasuna bultzatzen du.	GA	A	EAEK	K	GK
(5) Ingelesaren irakaskuntza goiztiarrak euskararen bilakaera kolokan jartzen du.	GA	A	EAEK	K	GK
(6) Ingelesa euskararen eta gaztelaniaren gainera gailentzea ez litzaidake gustatuko.	GA	A	EAEK	K	GK
(7) Euskara ingelesaren eta gaztelaniaren gainera gailentzea ez litzaidake gustatuko.	GA	A	EAEK	K	GK
(8) Gaztelania ingelesaren eta euskararen gainera gailentzea ez litzaidake gustatuko.	GA	A	EAEK	K	GK
(9) Ingelesaren sarrera goiztiarra testuinguru linguistiko zehatzetan soilik da baliagarria.	GA	A	EAEK	K	GK
(10) Ingelesaren sarrera goiztiarrak ez du haurren euskara eta gaztelania maila kaltetzen.	GA	A	EAEK	K	GK
(11) Haurrek euskara, gaztelania eta ingelesa aldi berean ikas ditzakete.	GA	A	EAEK	K	GK
(12) Ingelesa ikastea haurrentzat helduentzat baino errazagoa da.	GA	A	EAEK	K	GK
(13) Euskara, gaztelania eta ingelesa jakitea haurren garapenerako aberasgarria da.	GA	A	EAEK	K	GK
(14) Haurrak nahastu egiten dira euskara, gaztelania eta ingelesa aldi berean ikasten badituzte.	GA	A	EAEK	K	GK
(15) Helduek hizkuntza-estrategia ugari dituztenez, ingelesa ikasteko erraztasun handiagoa dute.	GA	A	EAEK	K	GK
(16) Ingelesa goiz ikasteak hizkuntzen ikaskuntzarekiko jarrera baikorra sustatzen du.	GA	A	EAEK	K	GK

(17) Ingeleseko ikasle goiztiarrek berantiarrek baina ingeles maila altuagoa lortzen dute. GA A EAEK K GK

(18) Ingelesaren sarrera goiztiararen abantailak anitzak eta ugariak dira. GA A EAEK K GK

(19) Ingelesaren sarrera goiztiarra moda kontua da, eraginkorra denetz frogatu gabe hedatu baita. GA A EAEK K GK

(20) Ikastetxeetan, euskara, gaztelania eta ingelesa ordena honetan ezarri beharko lirateke (aukera bakarra hautatu).

1. Euskara
2. Ingelesa
3. Gaztelania

1. Euskara
2. Gaztelania
3. Ingelesa

1. Gaztelania
2. Euskara
3. Ingelesa

1. Gaztelania
2. Ingelesa
3. Euskara

1. Ingelesa
2. Euskara
3. Gaztelania

1. Ingelesa
2. Gaztelania
3. Euskara

1. Ingelesa & Euskara
2. Gaztelania

1. Ingelesa & Gaztelania
2. Euskara

1. Euskara & Gaztelania
2. Ingelesa

2. eranskina. Galdetegi emaitzak

	GA	A	EAEK	K	GK
1. itema	4 - 3	3			
2. itema	1 - 1	4 - 2	2		
3. itema	1 - 2	3	2	1	1
4. itema	1	3 - 1	2	1 - 1	1
5. itema			2	3 - 2	2 - 1
6. itema	3 - 1	4 - 2			
7. itema			1 - 1	4 - 2	2
8. itema	5 - 1	2 - 2			
9. itema			1	5 - 2	1 - 1
10. itema	3 - 1	4 - 2			
11. itema	4 - 1	2 - 2	1		
12. itema	2 - 1	2 - 1	3 - 1		
13. itema	3 - 2	4 - 1			
14. itema		1	1	2 - 1	3 - 2
15. itema			2 - 1	3 - 1	2 - 1
16. itema	1 - 1	6 - 1	1		
17. itema		5 - 3	2		
18. itema	1	7 - 2			
19. itema			3	3 - 2	1 - 1
20. itema	1.Euskara 2.Ingelesa 3.Gaztelania 2 - 1	1.Euskara 2.Gaztelania 3.Ingelesa 5 - 1	1.Ingelesa eta euskara 2.Gaztelania 1		

**Urdinez adierazitakoak ingeleseko irakasleak dira.*

3. eranskina. Elkarrizketarako galderak

Sarrera goiztiarra eztabaidagai: adierazi auzi hauen inguruan duzun iritzia eta arrazoitu zure erantzuna.

1. Zer iritzi duzu ingelesa lau urteko geletan lantzeaz? Zure ikuspegia defendatzen duen ikerketarik/daturik/esperientziarik ezagutzen duzu?
2. Zein dira zure ustez sarrera goiztiarrak haurren garapenean bultzatzen dituen onurak edota kalteak? (garapen kognitiboan, euskara, gaztelania eta ingeleseko gaitasun-mailan, hizkuntzekiko jarreran, etab).
3. Zer uste duzu Haur Hezkuntzan ingelesaren lanketari eskaintzen zaion denboraz? Ordu horiek beste zerbaitetarako erabiliko zenituzke?

4. eranskina. Elkarrizketen transkripzioak

- **Tutorea I**

Zer iritzi duzu ingelesa lau urteko geletan lantzeaz?

Oso ondo iruditzen zait lau urterekin ingelesa lantzen hastea. Pentsatzen dut haurrak zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta erraztasun handiagoa dutela hizkuntzak ikasteko. Gainera, goiz hasteak hizkuntza ikasteko denbora gehiago izatea inplikatzeko du.

Imajinatzen dut froga teorikorik ez duzula, baina esperientzia aldetik nabaritu duzu alderik haurren ingeles gaitasunean?

Bai, berehala harrapatzen dute hizkuntza eta oso pozik egoten dira. Halaber, ohartu naiz azentua ere berehala hartzen dutela. Aldiz, nagusiago hasten direnei gehiago kostatzen zaie azentu hori harrapatzea edo motibatuta egotea. Izan ere, txikitik, gehien bat, jolasen eta antzeko ekintzen bitartez ikasten dute. Ondorioz, oso gustura egoten dira, oso pozik egia esan.

Beraz, zuk zer uste duzu eragiten duela gehiago: adinak, ingelesa lantzeko moduak...?

Nik uste dut dena dela. Bien arteko dependentzia dago, adinagatik ezin baita ingelesa beste modu batera landu. Lau urterekin ezin zaitezke hasi klase teorikoak ematen. Guztiak oso praktikoa izan behar du eta askotan aldatu behar da ekintzaz. Eta uste dut guzti horrek badaukala ondorioz haurrek ingelesean lortzen duten gaitasun mailan.

Aipatutako ondorio horiek onuragarriak edo kaltegarriak iruditzen zaizkizu?

Nik uste dut ondorio positiboak bultzatzen dituela. Hala ere, egia da, euskara ikasten ari diren etorkin iritsi berrientzako, agian, beste hizkuntza bat sartzeko lar goiz izan daitekeela. Baina euskara dakitenei oso ondo etortzen zaiela uste dut, horientzat aberasgarria da. Orain, besteentzako zalantzak ditut. Igual hasieran gehiegi izan daiteke ingelesa sartzeko, euskara beraientzako berria delako eta baita ingelesa era. Baina nik uste dut konprobatuta dagoela gai direla biak aldi berean ikasteko. Hori dela eta, orokorrean, ondo ikusten dut.

Hortaz, zentzu horretan, ingelesak euskararen garapenari kalte egin diezaiokeela esango zenuke?

Zentzu horretan, agian bai. Badiotsut etorkinen kasuan, euskara ez dakiten etorkin iritsi berrien kasuan. Beharbada, hasiera batean, beraientzat nahastea delako.

Eta bertakoentzat?

Bertakoentzat, ez. Bertakoentzat, nire ustez, dena dira onurak.

Baita zonalde erdalduneko haurrentzat? Izan ere, haur horien euskarazko gaitasun maila ez dago hain garatua, eta gainera, kanpoan ez dute erabiltzen. Horientzat kaltegarria deritzozu?

Nik ezetz uste dut. Azken batean, haur horiek gazteleran oinarri ona badute, hau da hizkuntza horretan egitura onak badituzte, beste batean ere izango dituzte. Gaztelaniako egiturak euskararen eta ingelesean ere izango dituztela esan nahi dut. Orduan, haur horien euskarari kalterik ez dio egiten.

Zuk diozunaren arabera, haurraren ama-hizkuntza edozein delarik ere, oinarri bat duen bitartean ingelesaren sarrera goiztiarrak ez dio kalterik egingo.

Hori da. Hortaz, zentzu horretan, etorkinen kasuan ere berdina gertatzen dela uste dut. Baina egia da, hasieran nahaste apurtxo bat izaten dutela. Baina gerora, ikasturteak aurrera egin ahala, berehala moldatzen dira eta dena primeran ikasten dute. Nik badaukat adibide bat gelan eta frogatzeko aukera izan dut. Marokotik iritsitako etorkin bat daukat, eta euskara eta ingelesa primeran ikasi ditu. Jadanik bigarren hiruhilabetekoan gaude eta euskaraz oso ondo moldatzen da. Beraz, kalterik ez dio egin. Adibide horretatik abiatuz, baliagarritzat eta positibotzat jotzen dut sarrera goiztiarra.

Eta, zure ustez, goiz hasteak badauka eraginik beraien jarreran? Hau da, hizkuntzekiko ikuspegi positiboa garatzen dutela esango zenuke?

Bai, gero eta gehiago ulertzen dute, bai irakasleak esaten duena eta baita beste hainbat gauza ere. Eta gu hasten ginen bezala hasi beharrekoan, Lehen Hezkuntzan eta ezer ere ulertu gabe, beraiek lehenengo mailara doaz maila batekin. Nire ustez, oso ondo datorkien aurreikasketa bat egiten dute Haur Hezkuntzan.

Beraz, sarrera goiztiarrak ingeleseko gaitasun mailan laguntzen duela esan nahi duzu?

Goiz hasteak, gerora, maila altuagoa ematen diela uste dut.

Eta zer uste duzu Haur Hezkuntzan ingelesari eskaintzen zaion denboraz: nahikoa dela, gutxiegi dela edo gehiago eskaini beharko litzaiokeela?

Nik uste dut nahikoa dela. Bi saio izaten dituzte astean eta horrekin nahikoa dutela deritzot.

Beraz, ordu horiek ondo aprobetxatuta daudela uste duzu. Edo, agian, beste arlo batzuk jorratzeko erabiliko zenuke denbora hori?

Nik uste dut ez dela hainbeste, eta, beraz, ordu horiek ingelesa lantzeko utzi ahal direla. Astean bi saio besterik ez dira, eta gainerako saioekin uste dut badaukadala denbora beste hainbat gauza lantzeko.

Eta zuk uste duzu atzerriko hizkuntza ingelesa izan beharko litzatekeela edo besteren bat proposatu beharko litzaiekeela?

Nik uste dut, printzipioz, ingelesa jakinez gero, beste leku askotara joateko nahikoa prestatuta zaudela. Leku gehienetan ingelesa daukate, ez bada lehenengo hizkuntza bezala bigarren hizkuntza gisa. Beraz, ingelesa aproposena dela uste dut.

- **Tutorea II**

Zer iritzi duzu ingelesa lau urteko geletan lantzeaz? Zure ikuspegia defendatzen duen ikerketarik/daturik/esperientziarik ezagutzen duzu?

Nik egokia ikusten dut lau urteko gelan ingelesarekin lehenengo kontaktua hartzen hastea. Adibidez, nire belaunaldikoak Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan hasi ginen eta aldea nabarmena da. Gainera, nik ikusten dut gaur egun gizarteak erdi derrigortuta gauzala ingelesa ikastera, batez ere Europa mailan oso maila txarra daukagulako. Ni kanpora joan naizenetan ohartu naiz, beste batzuekin alderatuta, nahiko maila eskasa daukagula. Eta hori ni eskolaz kanpo ere beti ingelesean ibili naizela. Nire inguruko jendea aspektu horretan are traketsago ikusten dut. Baina, gaur egun, hurrek gaitasun handiagoa dutela esango nuke. Gero eta lehenago hasteak, eta beraz, kontaktua gero eta lehenago hartzeak, aberastasun gehiago ematen die edo...

Beste erraztasun bat, agian?

Bai, noski. Eta hizkuntza lehenago berenganatuko dutela. Suposatzen da hizkuntzarekin gero eta urte gehiago kontaktuan egotean hurrek hobeto ikasiko dutela. Edo hori uste dut nik behintzat.

Orduan, zuk ikerketei buruzko daturik ez daukazu, baina esperientzia aldetik diferentzia esanguratsua nabaritu duzu.

Nik ez daukat datu objektiborik, nire esperientzia eta iritzi pertsonala dira. Eta esperientzia horretatik abiatuz, aberasgarria deritzot lau urteko geletan ingelesa lantzeari ekitea.

Eta zuk uste duzu atzerriko hizkuntza gisa ingelesa ezartzea egokia dela? Edo horretan oinarrituta eskuratu duen nagusitasunaren ondorio besterik ez dela?

Europa mailan ez ezik, mundu mailan ere ingelesa edozein esparrutan hitz egiten da. Nik uste dut ingelesa jakinda mundutik zehar lasai ibili zaitezkeela.

Beraz, ingelesa atzerriko hizkuntza gisa ezartzea ondo deritzozu.

Bai, ados nago horrekin.

Eta gero, beste hizkuntzarik sartuko zenuke? Beharbada Haur Hezkuntzan ez, baina Lehen Hezkuntzan? Edo gehiegi izango litzatekeela deritzozu?

Ez, gure gizarte honetan ikusten dut nahikoa hizkuntza dituztela eta, beraz, ez nuke besterik sartuko. Hobeto gauzak dauden bezala uztea.

Eta sarrera goiztiarrera bueltatuz, zuk uste duzu ingelesarekin goiz hasteak haurren garapenean onurak edo/eta kalteak bultzatzen dituela?

Nik uste dut gero eta hizkuntza gehiago jakiteak, gero eta onura gehiago bultzatuko dituela eta aberasgarriagoa izango dela haurrarentzat. Kalterik ez dio inoiz ere egingo hizkuntza bat gehiago jakiteak.

Baina gizartean hedatuta dagoen aurreiritziak dio euskara hizkuntza gutxitua den aldetik, ingelesak kalte egin diezaiokeela. Zuk horrelakorik uste duzu?

Lehenik eta behin euskara landuko nuke, azken finean, gure hizkuntza delako. Eta gero landuko nuke ingelesa. Gainera, nik txikitan gaztelera kalean ikasi nuen. Orduan, eskolaren baitan, gaztelerrari ez nioke ingelesari baino lehentasun handiagoa emango. Baina beti ere bi hizkuntza horiek euskararen ondoren kokatuko nituzke, noski.

Beraz, euskara hezkuntzaren ardatza bihurtu eta gero gainerakoak sartuko zenituzke.

Hori da. Lehenik eta behin gurea den euskara ezarri eta gero ez nuke gaztelania ingelesaren gainetik jarriko, biak parekatuko nituzke. Beno, hori nire iritzia da.

Eta horrelako planteamendu batek hiru hizkuntzekiko jarrera baikorrak sustatuko lituzkeela iruditzen zaizu?

Nik ez dut uste hiru hizkuntzak parekatu behar direnik.

Zuk diozunaren arabera, euskara guztien gainetik jarri zenuke eta gainerako hizkuntza guztiak parekatu zenituzke.

Bai, hori da.

Baina horrek haurraren jarreraren eraginik izango lukeela uste duzu?

Ez dakit... Jarrera... Guk ez dugu haurra ikastera behartuko, baina gero hizkuntza irakasteko moduak baldintzatuko du bereziki jarrera. Zorrotz jarriz gero, askotan, lortzen duguna kontrakoa da. Hizkuntzak irakasteko orduan baliabideak, haurren motibazioa eta beste hainbat gauza izan behar ditugu kontuan. Eta lau urteko geletan hasten direnean, jolasen bidez, ipuinen bidez, abestien bidez... ikasten dute ingelesa. Horrela haurrak motibatuta ekiten diote ikaskuntzari, baina behin liburuekin hasten direnean, trabatu edo egiten direla uste dut. Egia esan, ez dakit nola izango den, baina jolasen bidez denean beste motibazio bat dute umeei.

Orduan, zure ustez, ingelesa lantzeko moduak eragin zuzena du haurren jarreraren.

Bai, metodologiaren eta motibazioaren arteko harremana estua da. Irakasten den moduaren arabera, haurrek jarrera bat edo beste berenganatuko dute. Eta esan bezala, alderdi honetan, Haur Hezkuntzan gauzak ondo egiten direla uste dut. Ingelesa lantzeko erabiltzen den planteamenduak haurren motibazioa sustatzen du, eta horrek ingelesarekiko jarrera positiboa bultzatzen du.

Beraz, ondo deritzozu Haur Hezkuntzan ingelesari ematen zaion garrantzia eta eskaintzen zaion denbora.

Bai, astean bi saio izaten dira eta beste arlo batzuei eskaintzen zaion denbora ikusita, gehiago ezin zaio eman. Bestela, beste arlo batzuei kendu beharko litzaieke. Beraz, egokia ikusten dut astean ematen zaion denbora.

Hortaz, ez zenuke denbora hori beste edozertarako erabiliko. Edo, beharbada, aipatu dituzun arlo horiek jorrazeko aprobetxatuko zenuke?

Ez, ondo dagoela deritzot. Ingelesa lantzeari ez nizkioke ez ordu gehiago ezta gutxiago eskainiko ere. Dagoen bezala egoki dagoela iruditzen zait.

- **Tutorea III**

Zer iritzi duzu ingelesa lau urteko geletan lantzeaz? Zure ikuspegia defendatzen duen ikerketarik/daturik/esperientziarik ezagutzen duzu?

Nik ez daukat inongo daturik baina nik uste dut aberasgarria dela, eta zenbat eta goizago hasi hizkuntza lantzen eta erabiltzen askoz hobe. Nire ikuspuntua da lehenik eta behin, geurea, euskara, sustatu beharko litzatekeela era sendo baten. Gero, beste hizkuntza guztien ekarpena beti da aberasgarria, beti da onurarako, eta zenbat eta goizago hasi ingelesa edo beste edozein hizkuntza lantzen nik ondo deritzot. Uste dut haurraren ikuspegia eta perspektiba areagotzen duela eta askoz ere hobea dela. Eta ez ingelesa, alemana, frantsesa... Frantsesa ere hor daukagu, mugan bertan, eta horrek onurak ekarriko lekizkiguke bai guri eta baita hurrei ere.

Atzerriko hizkuntza gisa ingelesa ezartzea ondo deritzozu?

Nik uste dut hori erabaki politikoa dela. Momentuz ez dakit ingelesa izan beharko litzatekeen edo frantsesa. Garai batean frantsesa izan zen, gaur egun, ingelesa da. Ingelesak, noski, mundu mailan esparru zabala du eta edozein lekutan erabiltzen den hizkuntza da, eta, beraz, ikasi beharrekoa deritzot. Baina, era berean, frantsesa ere hor daukagu, bertan daukagu, eta hemendik 100 bat kilometrora beste herrialde batean sartzen gara, beste nazio batean, eta gure auzokoa da eta hori ere ikastea ondo deritzot. Hizkuntzek, nire ustez, ez dutenez lekurik betetzen, zenbat eta gehiago hobeto.

Daturik ez duzula aipatu duzu, baina esperientzia pertsonalaren aldetik, nabaritu duzu bilakaerarik ikasleen ingeles mailan? Urte batzuetatik hona ikasleen mailak hobetu duela esango zenuke?

Oso zaila da hori, ez dakit, gauzatzea edo... Nik nabaritu dudana da ahozko hizkuntzari eman zaion garrantzia ikusita, haurrak lau urterekin hasten direla jada hizkuntza ahoskatzen eta beste era batean ulertzen. Gure garaian gehiago zen idazteko prozesua, idazmenari ematen zitzaion garrantzia eta fracaso hutsa izan zen. Guk ez dakit zenbat urte eman ditugu ingelesa ikasten eta ez dugu mailarik lortu. Hor hutsune galanta ikusi da, zeren 20 urtetan ikasten egon garen hizkuntza bat, hemendik irten, Ingalaterrara joan eta ez izan gai minimo batzuk betetzeko... Bada, hor fracaso itzela egon da. Orduan, nik uste dut gaur egun beste ikuspuntu bat, hizkuntzekiko beste jarrera bat, irakasteko beste modu bat dagoela eta horrek onurak ekarriko dituela etorkizunean.

Nik uste dut ni baino gazteagoak zaretenok, hizkuntzarekiko beste jarrera bat daukazuela eta baita beste maila bat ere, eta hori lortu duzuela ikasteko beste modu batzuk erabili dituzuelako edo irakasleek irakasteko beste metodo batzuk erabili dituztelako.

Beraz, adina baino irakasteko modua diozu dela ingelesa eraginkortasunez berenganatzeko gakoa.

Bai, oso garrantzitsua da, batez ere hizkuntzak erabiliz ikasten direlako. Hizkuntza erabiliz zorrozten den tresna da, eta orduan, zuk hizkuntza hori erabiltzen duzun heinean zorroztu egiten duzu, hobetu egiten duzu eta, noski, ahoskatu ere hobeto egiten duzu. Hori dela eta, nik uste dut hizkuntza idatzia baino lehenago ahozko hizkuntza landu beharko litzatekeela. Umetan amagandik edo aitagandik jasotzen duguna ahozko hizkuntza da eta hori garatuz doa geroago, hizkuntza xurgatzen eta pixkanaka zeureganatzen eta zeurea bihurtzen zoazen heinean. Eta hori, hiru urterekin edo lau urterekin, ingelesarekin gertatuko balitz, eta modu aiposean irakatsiko balitz, nik uste dut onuragarria izango litzatekeela.

Eta zein onura edo kalte bultzatzen dituela uste duzu hizkuntzarekin goiz hasteak?

Niretzat hizkuntzak ikastea beti da ona, hizkuntzak, kulturak, beste munduetako pentsaerak sekula ez dira kalterako. Orain, modu aiposean egingo ez balitz, kaltegarria izan daiteke. Eta sarritan egiten duguna da gauzak sartu baina gutxi landutako gauzak. Hortaz, irakaslearen ahoskatze edo ingelesa irakasteko mailak aproposa izan behar du eta helburuak zehaztu behar dira. Nire ustez, euskarak egon beharko luke lehenengo gurea eta herri honetakoa delako. Horrela, euskara era aiposean sustatu eta gero beste hizkuntza guztiak jorratu. Eta zenbat eta hizkuntza gehiago jakin eta maitatu orduan eta hobeto. Azken finean, euskarak mundu bat zabaltzen dizu, gaztelaniak beste bat, ingelesak beste bat... eta hori beti da aberasgarria. Beste hizkuntza batzuetan ulertzeak eta pentsatzeak eta beste errealitateak ulertzea beti da ona.

Beraz, ondo planteatuz gero, ingelesaren sarrera goiztiarrak euskararengan kalterik eragiten ez duela pentsatzen duten horietakoa zara.

Inondik inora ere ez da kaltegarria. Baina, noski, euskara hizkuntza gutxitua den heinean, beste hizkuntza boteretsuengandik jasotzen duen presioa kontuan izan behar

dugu. Hor dugu egunero gaztelania, eta ingelesa bera gero eta gehiago. Globalizazio kontua dela eta, ingelesaren etorrera bortitza izan da eta izango da. Eta zinema gaztelaniaz daukagu, telebistako kate gehienak ere gaztelaniaz dauzkagu... Orduan, nik pentsatzen dut euskararekiko jarrera positiboa izan beharko genukeela, zeren azken finean Euskal Herriko hizkuntza euskara da, eta gero besteak maitatu berdin berdin baina geurea gordez.

Testuinguruko ezaugarrien arabera, sarrera goiztiarra leku batzuetan besteen baino egokiagoa dela uste duzu? Hau da, Igorre eta Arratia mailan euskara nahiko indartsu dago, aldiz, bere presentzia murriztagoa da beste zenbait zonaldetan. Horietan sarrera goiztiarra baliagarritzat jotzen duzu?

Bai, nire ustez, ondo legoke lau urtetik aurrera ingelesa lantzea, baina beti ere euskararekiko diskriminazio positiboa eginez. Gure hizkuntzak beste hizkuntza boteretsuengandik jasotzen duen presioa nabarmena da. Beraz, irakasleoi dagokigu bere alde egitea, euskarari behar duen garrantzia ematea. Hemendik (Arratiatik) kanpora, beste leku batzuetan, euskarak ez du pisu hori izaten. Hala ere, ahalegin berezi bat egin beharko litzateke euskararen aldeko jarrera sustatzen eta gero beste denak sartzea ez deritzot txarto, bai ingelesa baita gaztelania ere. Nik ulertzen dudan heinean, euskara ardaztat harturik eleaniztasuna bilatzea da kontua. Ikasleak eleanitzak izatea oso ondo deritzot.

Beraz, zuk uste duzu Haur Hezkuntzan ingelesa lantzeari eskaintzen zaion denbora baliagarria dela. Edo, beharbada, denbora hori beste edozer lantzeko erabiliko zenuke?

Niretzat egokia da. Dena den, nik Haur Hezkuntzatik hasita emango nituzke irakasgai batzuk ingelesez, adibidez arte hezkuntza. Hau da, hizkuntzak modu naturalean erabili, zerbait adierazteko edo ikasgai bat irakasteko. Hizkuntza normaltasunez erabili, bai ingelesa bai frantsesa edota beste edozein hizkuntza ere. Nik horrela ulertzen dut behintzat. Nik uste dut euskarak bere esparrua izan behar duela, zeinak zabalena izan beharko lukeen, eta gero beste hizkuntzak apurka-apurka irakasgaietan txertatzen joan.

Ingeles funtzionala, beraz. Hau da, haurrei erabilgarria eta baliagarria zaien ingelesa.

Hori da, ez ingelesa irakasgai isolatu moduan ezta gramatika irakastean oinarritutako ingelesa. Nik uste dut hori beste garai batzuetako metodoa izan dela. Ingelesak txertatuta egon beharko luke, adibidez, Natur Zientzietan. Nik horrela ulertzen dut hezkuntza, eta etorkizuneko hezkuntza horrelakoa izatea espero dut.

Ildo horretatik, eskolaren planteamendua egokia iruditzen zaizu? Izan ere, Haur Hezkuntzan egon badago ingelesaren sarrera goiztiarreko proiektua baina Lehen Hezkuntza ez dago jarraipenik (Inebi ez ezer). Zuk uste duzu hasiera batean lortu duten erraztasun hori gerora galduz doazela?

Nik uste dut erabiltzen dugun bidea momentu honetan ez dela aproposena. Gauzak egiten dira egiten diren moduan eta egiten dira egin behar direlako, baina arlo askotan (hezkidetzan, normalkuntzan, hizkuntzarekiko jarreran). Ez dago planteamendu serio bat, eta askotan gauzak inposatu egiten dira. Bai, gure ikasleek eleanitzak izan behar dute, baina... Zelan? Zer proiektu dago? Zelan bideratuko da proiektu hori? Zelan txertatuko da eskolan, inguruan, gizartean eta jendartean? Azken finean, ez da berdina Barakaldo, Tuteran edo Igorre. Horrek planteamendu serio bat eskatzen du eta proiektu serio bat, ez gauzak egin egitearren. Bai, ingelesa eman behar da, txertatu behar da, ikasle eleanitzak lortu behar ditugu, baina hori nola? Hausnarketa sakon bat egin beharko litzateke, gauzak modu serioan eta esanguratsuan egiteko, eta ez egin egitearren. Askotan, erabaki politikoak izaten dira; bai ordenagailuak erabiltzea bai politika linguistikoa eta baita beste mila gauza ere. Gauzak ondo egiten dituzten lekuak, adibidez Danimarka edo Holanda, erreferentziatzat izan behar ditugu. Horiek hiru hizkuntza erabiltzen dituzte modu ederrean, modu aproposan. Horrek, beraz, ez du esan nahi batak bestea kaltetzen duenik. Holandarrek ingelesa primeran erabiltzen dute, aldiz, euskaldunak kanpora goazenean, gu geu gara txarren hitz egiten dugunak. Eta hori zergatik? Bada, ez da gure errua, gu ez gara haiek baino leloagoak edo hizkuntzetan traketsagoak. Hezkuntza arlotik daukagun planteamendu eskasa da horretarako arrazoia.

Horrekin lotuta, zuk aipatu duzu jarrera positiboak sustatu behar direla. Denok dakigu txikitan hiru hizkuntzekiko jarrera positiboak sustatzea erraza dela, baina horrek Lehen Hezkuntzan jarraipenik ez badu ezerezean gelditzen da planteamendua.

Hori da. Gainera, nik uste dut hezkuntza sistema zaharkitua daukagula, irakasgaiak eurak, metodoa... Orduan, horri beste buelta bat eman behar zaio: zelan irakatsi, zer irakatsi... Ez dago proiektu serio bat, eta hori da arazoa. Proiektu seriorik ez dago, eta gainera, lau urtetik lau urtera proiektu horiek jarraikortasun bat izan beharrean, etena izaten dute. Orduan, zerbait hasi eta lau urte igarota eten egiten bada, ez dauka seriotasunik. Eta ez dago gogo politikorik hori jorratzeko. Beraz, hurrek ez dute errurik; ingelesa ez dakite hezkuntza arlotik hori ez delako bideratu edo ez modu egokian behintzat.

- **Ingeleseko irakaslea I**

Zer iritzi duzu ingelesa lau urteko geletan lantzeaz? Zure ikuspegia defendatzen duen ikerketarik/daturik/esperientziarik ezagutzen duzu?

Ez daukat esperientziarik horretan, baina pentsatzen dut positiboa dela. Nik uste dut haurrek gero eta ingeles maila altuagoa dutela. Orain seigarren mailan irteten direnak zuen garaian irteten zinetenak baino askoz ere maila hobea dute.

Beraz, esperientzia aldetik nabaritu duzu aldea: arinago hasi direnak bestelako erraztasun bat dute.

Bai, ordu gehiago eman dituzte, beste erraztasun bat dute... Ez dakit... Egia esan, ni ez naiz inoiz txikiei klaseak ematen aritu. Baina gero nik izan ditudan ikasle nagusiagoak maila hobearekin etorri dira, bai ulermen aldetik, baita adierazpena...

Eta zergatik uste duzu izan daitekeela: ordu gehiago sartu dituztelako, txikitan hasteak nagusiagotan garatu ezin diren gaitasunak garatzea ahalbideratu dielako...?

Bi faktore horien konbinaketa izan daitekeela iruditzen zait. Batetik, ordu gehiago eman dituztelako; eta bestetik, agian, ulermenerako eta ahoskerarako goizetik hasi direlako.

Beraz, zuk uste duzu sarrera goiztiarraren ekarpenak positiboak direla? Edo kalteren bat bultza dezakeela esango zenuke?

Ez diot kalterik ikusten.

Inguruko zenbait jendek uste du euskara hizkuntza gutxitua denez, ingelesak kalte egin diezaiokeela.

Ez dut uste ingelesak euskarari lekua kentzen dionik. Ingeles gehiago jakiteak edo ikasgelan gehiago emateak, ingeles goiztiarra ematen den neurrian behintzat, ez dakarkio kalterik euskarari.

Sarrera goiztiarra edozein testuingurutan baliagarria deritzozu? Hau da, gure ingurunean euskara nahiko indartsu dago, baina beste zenbait zonaldetan euskararen presentzia murriztagoa da. Horietan ere ingelesaren sarrera goiztiarrak ez luke euskararen garapena baldintzatuko?

Ematen den ordu kopurua izan beharko litzateke kontuan. Hala ere, gure inguruko eskoletan ematen den legez - astean ordu eta erdi - ez dut pentsatzen euskarari kalterik egin diezaiokeenik.

Hortaz, edozein testuingurutan balizkoa da.

Bai, bai.

Eta horrekin batera, haurrak hizkuntzekiko garatzen duen jarreraren onurak bultzatzen dituela esango zenuke? Bestela esanda, hizkuntza ezberdinak txikitatik entzuteak eta hitz egiteak jarrera baikorra sustatzen du?

Bai. Baina egia esan, nik uste dut, haurrek inoiz ez dutela ingelesaren aurkako jarrerarik izan. Ingelesak indar handia dauka munduan eta, orokorrean, ingelesarekiko haurren jarrera beti da ona. Eta beti izan da ona, baita goiztiarra ez zegoenean ere. Komunikabideetan indar handia dauka eta gurasoen aldetik ere babes handia izan du. Beste arlo batzuk eskolan baztertuta gelditzen ziren, baina ingelesak bazeukan bere tokitxo lehena ere.

Eta ingelesaz gain, beste hizkuntzarik sartu ahalko edo beharko zela uste duzu?

Nik ez dut uste eskola guztietan atzerriko hizkuntza gisa ingelesa ezarri beharko litzatekeenik. Beste hizkuntza batzuk egon daitezkeela pentsatzen dut. Esate baterako, zergatik ez hor ondoan dugun frantsesa? Honen harira galdetegian ere egon da galderaren bat. Nik ez dut uste euskaldun guztiok derrigorrez ingelesa jakin behar dugunik, beste hizkuntza batzuk jakin genitzake: frantsesa, alemana edo txinera, ez dakit...

Eskolaren araberako aukeraketa?

Baliteke. Adibidez, galdeketa bidez iritziak batuz edo hizkuntzak aukeratzera emanaz. Eskola handietan, agian, badago aukera lerro biak eramateko, bata ingelesari dagokiona eta bestea frantsesari.

Hortaz, baliabideak dauden bitartean, aukera ezberdinak planteatzearen aldeko zara.

Bai, erabat ados.

Ingelesaren sarrera goiztiarrera bueltatuz, zuk uste duzu Haur Hezkuntzan ingelesari eskaintzen zaion denbora nahikoa dela edo gehiago eskaini beharko litzaiokeela?

Nik uste dut gehitxoago sartu ahal dela. Normalean, ordu bat eta erdi baino ez da, beraz, pixka bat gehiago sartzeko aukera badago. Hiru edo lau ordura arte ezarri ahalko litzatekeela deritzot, baina beti ere irakasleen ingeles maila ona ziurtatuz. B2 eskatzen dute, baina niri gutxiegi iruditzen zait. B2 gutxi da edozein mailatan, baina are gutxiago haur txikiekin aritzeko orduan. Txikiekin uneoro ahozkoa erabiliz lan egiten da, beraz, B2 pobre gelditzen dela pentsatzen dut.

Proiektuaren baitan Eusko Jaurlaritzak prestakuntzarako baliabiderik eskaintzen dizue?

Orokorrean, ez proiektuaren barnean gaudelako. Esan nahi dut, Eusko Jaurlaritzak GARATUn beti ditu irakasleen ingeles hobetzeko ikastaroak. Egon beti dago sakontzeko aukera, baina beti boluntarioa da. Hala ere, gero klaseak eman ahal izateko eskatzen duten maila B2 da.

Prestakuntzarako aukera onak eskaintzen dituztela uste duzu, aldiz, exigentzia maila baxua iruditzen zaizu.

Bai, hori da. Badaude kanpora joateko aukera eskaintzen duten ikastaroak ere. Alde horretatik ez gaude txarto, baina ingelesa irakasteko eskatzen duten perfila baxua iruditzen zait. Eta hori bai azpimarratzekoa iruditzen zaidala. Orokorrean, uste dut, irakasleen ingeles maila altuagoa bermatu behar dela. B2 ez dut uste nahikoa denik, C1 beharko litzateke.

- **Ingeleseko irakaslea II**

Zer iritzi duzu ingelesa lau urteko geletan lantzeaz?

Nire ustez, ondo dago eta positiboa dela iruditzen zait. Nik neuk ez daukat esperientzia larregirik txikiei emateaz, urte bakarra egon bainintzen. Nire esperientzia nagusiekin da, baina ikusten dut ondo prestatuta etortzen direla. Sarrera goiztiarraren bidez, bereziki, belarria lantzen dela uste dut. Nire sasoiaren seigarren mailan hasten ginen ingelesa eskolan lantzen, gaur egun, aldiz, lau urterekin hasten dira eta diferentzia igartzen da. Seigarren mailara iristen direnerako, guk genekienarekin alderatuta, aldea nabarmena da. Ni neu sei urterekin hasi nintzen partikularrera joanez, eta nire ikaskideekiko ezberdintasun handia nabaritzen nuen. Belarria beti daukazu landuagoa, esamolde gehiago dakizkizu... Agian, txikitik gauza batzuk jakin edo ulertu barik esaten zenituen baina zein egoeratan edo testuingurutan erabiltzen ziren berenganatzen zenuen. Hori guztia txikitatik lantzea egokia dela uste dut. Eta beraientzat ere positiboa da, jolas eran egiten da dena, ez da aspergarria, kontrakoa baizik... Hortaz, ondo deritzot hizkuntza bat lau urterekin ezartzea.

Beraz, ondo planteatuz gero, sarrera goiztiarra ingeles maila altuagoa lortzeko baliagarria dela uste duzu?

Nik baietz uste dut, laguntzen duela esango nuke. Beti daude haur batzuk, berez, hizkuntzatan hain trebeak ez direnak, baina horientzat ere beste erara txarrago izango litzateke. Hortaz, sarrera goiztiarra maila hobea lortzeko bideetako bat izan daitekeela iruditzen zait.

Eta uste duzu edozein testuingurutan baliagarria dela?

Sartzen den moduan ez zait txarto dagoela iruditzen, eta ezaugarri ezberdinetako egoeratarako baliagarria iruditzen zait. Ez dut pentsatzen batak bestea solapatu behar duenik. Ez dut uste hizkuntza gehiago jakiteak beste batzuk ahaztea eragiten duenik edo beste batzuk txarrago erabiltzea edo... Hau da, nik uste dut ingelesak ez diola kalterik egiten beste hizkuntzei. Gainera, oso denbora gutxi ematen dute, orduan beste hizkuntzen garapenerako ez da oztopoa. Justu kontrakoa: nik uste dut lagundu eta dena egin diezaiekeela. Hirugarren hizkuntzak beste biei lagundu diezaieke, bere ekarpenak gainerako hizkuntzentzako positiboak dira.

Agian, batean eskuratzen duten erraztasuna besteetara transferitu dezakete?

Bai, bai.

Aipatu duzu, ingelesari denbora gutxi eskaintzen zaiola. Hortaz, zuk Haur Hezkuntzan denbora gehiago eskainiko zenioke?

Ahal izanez gero, gehiago sartuko nuke. Baina beti ere saio laburrak, 30 minutu edo 45 minutu asko jota. Eta egia esan, 45 minutu larregi deritzot. Denboran gehiegi luzatuz, aspertzen hasten dira eta zaila da beraien arreta mantentzea. Baina, ahal izanez gero, ordu erdiko saio gehiago sartuko nituzke.

Sarrera goiztiarrak onurak bultzatzen dituela aipatu duzu. Baina kalterik eragin dezakeela uste duzu?

Ez, kalterik ez diot ikusten.

Eta goiz haste horrek, zure ustez, eragin positiboa du ingelesarekiko eta hizkuntzekiko garatzen duten jarreran?

Bai, hizkuntzekiko jarrera orokorrean positiboki eragiten du. Haur horiek ohartzen dira ordenagailuetan, interneten, telebistan, kalean... ingelesetik hartutako gero eta hitz gehiago ditugula. Batzuk beti konturatzen dira ikasgelan landutako hainbat hitz beraien jokoetan, marrazki bizidunetan edo beste lekuetan agertzen direla. Hortaz, ohartzen dira baliagarria dela hizkuntzak ezagutzea eta jakitea. Oro har, haurren jarrera ona dela uste dut.

Eta jarrera hori gerora mantentzen dute edo Lehen Hezkuntzan aurrera egin ahala galduz doazela esango zenuke?

Ez, nik uste mantentzen dutela. Agian, Bigarren Hezkuntzan galduz doaz, baina etapa horretan gauza gutxirekiko jarrera baikorra dute. Baina, orokorrean, konturatzen dira baliagarria zaiela eta jarrera positiboa mantentzen dute. Gogoratzen dut, behin bost urteko haur batek Lanzarotetik bueltan esan zidala: *“han ingelesa entzun dut”*. Esan beharra dago, gaur egun mutila Lehen Hezkuntzan daukadala eta ingelesean ona dela. Hala ere, orokorrean, konturatzen dira eta kontziente dira hizkuntzak badaukala erabilgarritasuna eta garrantzia eskolatik kanpo ere.